

Tokiko Giza Garapenaren dimentsio ekonomikoa: ekonomia sozial eta solidarioa

Egileak: Luis Guridi eta Juan Carlos Pérez de Mendiguren

Koordinatzailea: Amaia del Río Martínez

ISBN: 978-84-89916-89-0

2014ko martxoa

Hegoa



www.hegoa.ehu.es

UPV/EHU. Zubiri Etxea

Agirre Lehendakariaren Etorbidea 81

48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91

Faxa: 94 601 70 40

hegoa@ehu.es

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa

Elhuyar Plaza 2

20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia

138. posta-kutxatila

Nieves Cano 33

01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. / Faxa: 945 01 42 87

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.



Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Zilegi da obra hau askatasunez kopiatu, banatu eta komunikatzea, betiere, haren egiletza aitortzen bada eta xede komertzialetarako ez bada. Ezin egin daiteke obra honetan inolako aldaketarik, ezta obra honetatik eratorritako beste obrarik sortu ere.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Finantziazioa:



Aurkibidea

Siglen zerrenda	7
1. Sarrera	9
2. Ekonomia sozial eta solidarioa: jatorria, bilakaera eta tipologiak	13
3. Ekonomia sozial eta solidarioa eta Tokiko Giza Garapena	25
3.1. Sarrera	27
3.2. Ekonomia sozial eta solidarioaren alderdi arauemailea: ekonomia konbentzionalaren hainbat printzipio eta ikuspegiri egindako zenbait kritika	27
3.3. Gaitasunen ikuspegia, eta ekonomia sozial eta solidarioa	34
3.4. Ekonomia sozial eta solidarioa eta gaitasun kolektiboak	42
4. Ondorioak	53
5. Bibliografia	59

Taulen aurkibidea

1. taula. Ekonomia sozial eta solidarioaren izendapenak eta tipologiak	16
2. taula. Ekonomia sozial eta solidarioko ekintzaileren zenbait ezaugarri	21
3. taula. Ekonomia konbentzionalari egindako hainbat kritika	30

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa. Arrazoi praktikoa eta afiliazioa	36
2. grafikoa. Ingurunearen beraren kontrola	38
3. grafikoa. Beste espezie batzuk	41
4. grafikoa. Konpromisoa eta erakarpena	45
5. grafikoa. Harremanak eduki eta laguntzak eta baliabideak lortu	47
6. grafikoa. Egokitzea eta autoberritzea	49
7. grafikoa. Aniztasuna eta koherentzia orekatzea	52

Siglen zerrenda

ALOE	Ekonomia Arduratsu, Anitz eta Solidariorako Aliantza
MB	Munduko Bankua
GLB	Garapenerako Laguntza Batzordea
ESEEK	Ekonomia Sozialaren Espainiako Enpresa Konfederazioa
EEGK	Europako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua
CICOPA	Ekoizpen Industrialeko, Artisautzako eta Zerbitzuetako Kooperatiben Nazioarteko Erakundea
CIRIEC	Ekonomia Publiko, Sozial eta Kooperatiboari buruzko Ikerketa eta Informaziorako Nazioarteko Zentroa
CNLAMCA	Comité Nacional de Liaison des Activités Mutualistes Coopératives et Associatives
COCETA	Lan Elkartuko Kooperatiben Espainiako Konfederazioa
ESS	Ekonomia Sozial eta Solidarioa
ICA	International Co-Operative Alliance
OECD	Organisation for Economic Co-operation and Development
BPG	Barne Produktu Gordina
NBGP	Nazio Batuen Garapen Programa
EASS	Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Sarea
RILESS	Ekonomia Sozial eta Solidarioko Ikertzaile Latinoamerikarren Sarea
RIPESS	Ekonomia Sozial eta Solidarioa Sustatzeko Nazioarteko Sarea

1. Sarrera



Agiri hau ikerketa lan baten parte da, hain zuzen ere, tokiko giza garapenaren hainbat dimentsio, hala nola, dimentsio ekonomiko-produktiboa, edukiz hornitzea helburu duen ikerketaren parte. Lanaren atal honetan saiatuko gara justifikatzen zergatik dituen gure ustez Ekonomia Sozial eta Solidarioak tokiko giza garapenerako gaitasun onenak, modu egokienean laguntzen baitu gizakien gaitasunak, bai banakakoak bai taldekoak, sustatzen eta areagotzen, azterketaren ikuspegiarekin bat eginez.

Horretarako, lehenengo partean, XIX. mende amaieran ekonomia sozialaren sorrera nolakoa izan zen errepasatzen da, bai eta hurrengo mendean izan zuen bilakaera ere. Ekonomiaren mundu askotariko hori gaur egun osatzen duten hainbat modalitate azaltzen dira, eta, aldi berean, horien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak zehazten dira.

Lanaren bigarren partean, berriz, ekonomia sozial eta solidarioaren eta Tokiko Giza Garapenaren arteko harremanak lantzen dira. Alde batetik, ekonomia ortodoxoak oinarri dituen printzipioei egiten zaizkien kritika nagusietako batzuk aztertzen dira labor-labor, bai oinarri dituen postulatu nagusiengatik bai bere ahultasun nagusiak agerian uzten dituzten alderdi jakin batzuegatik. Gero, ekonomia sozial eta solidarioak oinarrian dituen postulatu nagusiak giza gaitasun nagusiekin eta gaitasun kolektiboekin lotuko dira, azaltzeko zer arrazoi direla-eta lagun dezakeen ekonomia sozial eta solidarioak hura garatzen eta sendotzen, eta, hortaz, nola lagun diezaiokeen tokiko giza garapenari, hori baita ikerketa honen azken helburua.

2. Ekonomia sozial eta solidarioa: jatorria, bilakaera eta tipologiak¹



¹ Kapitulua hau PÉREZ DE MENDIGUREN, Juan Carlos; ETXEZARRETA, Enekoitz; GURIDI, Luis (2009): *Economía Social, Empresa Social y Economía Solidaria: diferentes conceptos para un mismo debate*. Papeles de Economía Solidaria 1. zk. REAS. Bilbo, lanaren laburpena da.

Ekonomia sozialaren erroak eta jatorria XIX. mendearen korrante ideologiko handien artean daude -sozial-kristaua, sozialista eta anarkista-. Langile klaseek sortutako antolamendu forma berriak, hala nola, kooperatibak, langile elkarteak eta aseguru, aurrezki eta mailegu mutualitateak, izendatzen ziren esapide horren bitartez. Ez merkatuak ez Estatuak asetzen ez zituen biztanleriaren parte baten urritasunei eta premiei erantzuteko helburuarekin sortu ziren aipatutako erakunde haiek; baina, horrez gainera, dimentsio soziokulturala ere bazuten, hau da, identitate kolektiboa eta patu bera duen talde bateko kide izatearena, bai eta izaera politikogoko beste dimentsio bat ere, garai hartako kapitalismoarekin hautsi nahi zuena.

Gerraondoko zabalkunde aldian, ekonomia soziala garai hartako metaketa erregimen fordistaren ezaugarriekin bat eginik bilakatu zen, eta dimentsio politikoa galtzen joan zela eta beste dimentsio batzuek garrantzi handiagoa hartu zutela ikusi da, besteak beste, lehiakortasunarekin eta eraginkortasun ekonomikoarekin zerikusia duten alderdiak. Kooperatiba produktiboetan -nekazaritzaren alorrekoetan zein industrialetan-, kontsumo kooperatibetan eta mailegu eta babes sozialeko mutualitateetan antolatu ziren.

Hirurogeita hamarreko hamarkadaz geroztik, ekonomia sozialak zabalkunde nabarmena izan zuen Europan -bereziki, Frantzia, Belgika, Espainia eta Portugalen-, bai eta Quebecen eta Latinoamerikako hainbat herrialdetan ere -Argentina, Brasil, Txile, Ekuador-, besteak beste honako arrazoi hauen ondorioz: krisi ekonomikoa, nazioarteko esparru ekonomikoan eragindako aldaketak eta Estatu nazionalek arautzeko eta dinamizatzeko gaitasuna eta, orobat, enplegua sortzeko ahalmena galtzea. Lanik ezak eta lan merkatuan bazterturik gelditzeko arriskuak autoenplegurako eta solidaritateko dinamikak eragin zituzten, eragile ekonomikoen artean egoera berriari aurre egiteko.

Gaur egun termino ugari daude beren jarduera ekonomia publikoaren eta ekonomia kapitalista tradizionalaren artean gauzatzen duten enpresen eta erakundeen sektore zabala izendatzeko, eta irudi ugari hartzen dituzte, bai ikuspegi juridikotik bai antolamenduaren ikuspegitik. Ekonomia publikoaren eta ekonomia kapitalista tradizionalaren artean gauzatzen dute beren jarduera, nahiz eta zenbaitetan ez den erraza izaten muga zehatzak finkatzea. Askotan, merkataritzaren barneko eta merkataritzatik kanpoko baliabide ugari hartzen dituzte beren baitan, hala nola, dohaintzak, Estatuaren diru-laguntzak eta merkataritzako diru-sarrerak, lan boluntarioa eta diruz

ordaindua; merkatuaren logika eta solidaritatearen eta birbanaketaren logika bate-ratzeko oso modu berezia dute, eta merkataritza enpresen edo Hirugarren Sektore-ko elkarte zibiko tradizionalen antzeko formak dituzte barne kudeaketari dagokionez (Ikusi, 1. taula).

1. taula. Ekonomia sozial eta solidarioaren izendapenak eta tipologiak		
Izendapena	ESSaren ekintzailtza tipologiak	
- hirugarren sektorea	- kooperatibak	- etxeko lana
- ekonomia alternatiboa	- mutualitateak	- elkarte ekintzailtza
- sektore boluntarioa	- gizarte arrekuspeneko mutualitateak	- enpresa berreskuratuak
- sektore ez-irabazikoa	- elkarateak	- ekoizle elkarateak
- ekonomia informala	- fundazioak	- kontsumitzaileen elkarateak
- herri ekonomia	- lan elkarte anonimoak	- trukeak
- ekonomia autokudeatzailea	- lan sozietateak	- herri azokak
- ekonomia komunitarioa	- gizarteratze enpresak	- familia baratzak
- beste ekonomia bat	- bidezko merkataritzako enpresak	- finantza solidarioak
- ekonomia soziala	- gizarte enpresak	- banku etikoa
- ekonomia solidarioa	- haurtzaindegiak	- banku solidarioa
- etab.	- etab.	- etab.

Iturria: Pérez de Mendiguren, Etxezarreta, Guridi (2009) eta Coraggio (2011).

Hurrengo ataletan, ekonomia mota horri buruz jarduteko gehien erabiltzen diren lau izendapenetan jarriko dugu arreta: ekonomia soziala, irabazi asmorik gabeko erakundeak, enpresa sozialak eta ekonomia solidarioa.

Ekonomia soziala, gaur egun ezagutzen den moduan, Frantzia sortu zen, 70eko hamarkadan, hain zuzen ere, kooperatibak, mutualitateak eta elkarateak elkartzen zituen Comité National de Liaison des Activités Mutualistes Coopératives et Associatives (CNLAMCA) eratu zenean. Ekonomia Sozialaren Gutunean (1980an argitaratua), sektore publikoaren barnean ez dauden erakundeek multzo gisa definitzen dira; eta adierazten da funtzionamendu eta kudeaketa demokratikoa dutenez eta bazkideek eskubide eta betebeharrak berdinen jabe direnez, jabetzaren eta ondasunen banaketaren erregimen berezia dutela, eta ekitaldiaren soberakinak erakundea hazteko eta bazkideei eta gizarteari ematen zaizkien zerbitzuak hobetzeko baliatzen dituztela².

Duela gutxi, Europako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak (CESE) definizio berri bat eman du, babes instituzional handia izan duena Europan. Definizio horren arabera,

² Ikusi Chaves, R. (2008): *La economía social: dos décadas generando empleo, tejido productivo y cohesión social en Europa*. Valentziako Unibertsitateko Ekonomia Sozial eta Kooperatiboko Unibertsitate Institutua IUDESCOOP. Eskuragarri: <<http://www.eco.uva.es/novedades/vsem/PRC.pdf>>.

modu formalean antolatutako enpresa pribatuak dira, erabakitzeko autonomiarekin eta atxikitze askatasunarekin, bazkideen premiak merkatuaren bitartez asetzeko sortuak, ondasun eta zerbitzuak sortuz, aseguratuz edo finantzatuz; bazkideen arteko ondasunen edo soberakinen behin-behineko banaketa eta erabakiak hartzeko prozesua ez daude zuzenean kapitalarekin edo bazkide bakoitzak ekarritako kotizazioekin lotuta, eta haietako bakoitzari boto bat dagokio. Ekonomia sozialaren barruan sartzen dira, halaber, erabakitzeko autonomiarekin eta atxikitze askatasunarekin antolatutako erakunde pribatuak, merkatutik kanpoko zerbitzuak ekoizten dituztenak familien alde; horien soberakinak, egongo balira, ezin dute sortzen, kontrolatzen edo finantzatzen dituzten eragileek berenganatu³.

Ekonomia sozialak bi alderdi hartzen ditu: *merkatu barnekoa* bat, erakunde tradizionalenek jarduten dutena, eta *merkatutik kanpoko* bestea, irabazi asmorik gabeko erakundeek jarduten dutena. Bazkideen premiak asetzeko sortzen dira lehenak, hau da, bazkidea eta jardueraren erabiltzailea izaten dira aldi berean; merkatuko ekoizleak dira, hau da, bertan jarduten dute, produktuak salduz, eta baliabide gehienak bertatik ateratzen; eta soberakinak bazkide-erabiltzaileen artean banatu ditzakete, baina ez horietako bakoitzak jarritako kapitalaren proportzio berean, baizik eta bakoitzak betetzen duen jardueraren arabera. Sektore horretako gune gogorrena kooperatibek eta mutualitateek osatzen dute, baina lekua dute, halaber, lan sozietateek eta erantzukizun mugatukoek -balduin eta kapital sozial gehiena bazkide-langileena berena bada-, edo lan munduan sartzeko enpresetako askok. Erakundearen forma juridikoaz haratago, bada oinarri bat guztietan bereizgarria eta bereizlea: *kudeaketa demokratikoa*, bai erabakitzeko organoetan -pertsonek bat, boto bat-, bai etekinen banaketan.

Bigarren taldea erakunde pribatuek osatzen dute -elkartek eta fundazioak bereziki-, zerbitzuak eskaintzen dizkietenak hirugarrenei -familiak, etxeak-, merkatuetan komertzializatu dezaketenak, baina ikuspegi ekonomikotik nabarmentzen ez diren prezioetan; beren baliabideak bereziki emaitzei, bazkideen kuotei, diru-laguntzei... esker lortzen dituztenak; soberakinak, egongo balira, ezingo lituzkete kideek beraiek berenganatu. Honako hauek dira horien ezaugarri nagusiak: erakunde pribatuak dira, modu formalean antolatuak -berezko izaera juridikoarekin-, erabakitzeko autonomia-rekin, atxikitze askatasunarekin, jarritako kapitalari lotuta ez dagoen etekinen banaketa behin-behinekoarekin, eta antolamendu demokratikoa dute. Irizpide bereizgarri bakarra *kudeaketa demokratikoa* da.

Irabazi asmorik gabeko erakundeen kontzeptuak (*non-profit organization*-NPO) Estatu Batuetan du jatorria, eta anglosaxoniarrak munduari lotuta egon da tradizioz. Horiek izendatzeko era honetako kontzeptuak erabili ohi dira:

a) *karitatearen sektorea* (*charitable sector*), erakunde horiek izan ohi duten finantzaketa iturri nagusiari erreferentzia eginez, karitatez ematen diren dohaintza pribatuetatik

³ Ekonomia Soziala Europar Batasunean. CIRIECek Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialerako egindako txostenaren laburpena (CESE), DI CESE 96/2007. Eskuragarri: <http://www.observatoritercersector.org/pdf/centre_recursos/1_8_eco_03565.pdf>.

baitatoz; b) *sektore boluntarioa (voluntary sector)*, erakunde horiek mugiarazten duten lan boluntarioaren erabilerari erreferentzia eginez; c) *gobernuz kanpoko erakundeen sektorea (nongovernmental organizations)*, erakunde horiek sektore publikoari buruz duten independentzia azpimarratzen duena; eta d) *irabazi asmorik gabeko sektorea (non-profit sector)*, irabazirik bilatzen ez duten erakundeak direnez, ezin dituzte lortutako etekinak erakundeak kontrolatzen duten gizabanakoen artean banatu.

39 herrialdeetan⁴ sektore boluntarioa aztertu zuen azterketa zabal batean, erakundeen tamaina, egitura, finantzaketa iturriak eta jarduerak agerira agertzeko eta kontabilizatzeko, eta errealitate hori hobeto ulertzeko, bost ezaugarri finkatu ziren: i) *modu formalean antolatutako erakundeak*; ii) *botere publikoetatik kenduak, bereziak*, nahiz eta diru-laguntza publikoak jaso ditzaketen; iii) *autonomoak*, autogobernurako ahalmenarekin; iv) *irabazi asmorik gabekoa*, hau da, merkatuan salerosian aritzetik etekinak ateratzen ez dituztenak, edo, halakorik lortuz gero, ezin dituzte banatu kide sortzaileen edo zuzendaritzako kideen artean, eta v) *parte-hartze boluntarioa*, hau da, askatasunez atxikitzeko aukera, alde batetik, eta lan boluntarioaren parte bat derrigorrez erakundearen baitan egitea, beste alde batetik.

Enpresa sozialaren kontzeptua -social enterprise- 90eko hamarkadan sortu zen Europan eta Estatu Batuetan, eta gero eta interes handiagoa du politikaren eremuan eta eremu akademikoan. Europan garrantzi berezia du Europako Ikerketa Sareak (EMES)⁵; 1966an sortu zen, eta garai hartan Europar Batasuna osatzen zuten 15 herrialdeetako ikertzaileek osatua da. Estatu Batuen kasuan, Harvardeko Unibertsitateko negozio eskolak abian jarritako goraldi akademiko handia izan du “*Social Enterprise Initiative*” delakoak⁶. Hala eta guztiz ere, aldeak daude joera baten eta besteren artean.

Europan kasuan, enpresa sozialaren *alderdi kolektiboan* jartzen da arreta, haren izaera demokratikoan eta ekonomia ulertzeko eta egiteko moduan. Ekonomia sozialaren bultzada berri batekin lotu ohi da haren sorrera, eta, orobat, lotu ohi da gizarte zibilak globalizazioaren erronkei emandako erantzunarekin, langabeziak eta bazterketak sortutako arazo ekonomiko eta sozialentzako irtenbide berrien bilaketarekin, sektore pribatuak edo publikoak zaintzen ez dituzten gizarte eskakizun berrientzako erantzunarekin eta Europan Ongizate Estatuak berriro diseinatzeko testuinguruan zenbait zerbitzu publiko emateko modu berri batekin.

Komunitateari onura ekartzeko helburu zehatzarekin ondasunak eta zerbitzuak modu pribatu eta autonomoan hornitzeko erakunde gisa definitzen du EMES sareak enpresa soziala. Herritar talde bat da haien jabea eta haiek kudeatzen dute, eta kapital inbertsoreen interesak muga batzuen barruan daude; modu berezian balioesten dute beren autonomia eta beren etengabeko jarduera sozioekonomikoaren ondoriozko arrisku ekonomikoa; debekatuta dute, legez, etekinen banaketa, eta helburu nagusia etekina izan ez dadin daude egituratuta.

⁴ *The Johns Hopkins Comparative non-profit Project*. Sajardo eta Monzónek aipatua (2006:93-94).

⁵ Ikusi EMES European Research Network. Eskuragarri: <<http://www.emes.net/index.php?id=112>>.

⁶ Ikusi <<http://www.hbs.edu/socialenterprise/>>

Definizio horrek bi irizpide multzo bereizten ditu, joera ekonomikokoak batzuk eta joera sozialagokoak beste batzuk. *Joera ekonomikoko*en artean honakoak daude: a) jarduera etengabea ondasunen eta/edo zerbitzuen ekoizpenean; b) autonomia maila handia; c) arrisku ekonomiko nahiko nabarmena; eta d) soldatapeko lan mailaren bat. *Joera sozialeko* irizpideen artean azpimarratzekoak dira: a) komunitateari edo pertsona talde berezi bati mesede egiteko helburu esplizitua; b) pertsona talde batek abian jarritako ekimena; c) erabakitze ahalmena ez dago kapitalaren jabetzan oinarrituta; d) parte-hartzailea, zeinaren bitartez jardueran diharduten alderdiak inplikatzaren diren; eta e) ondasunen banaketa mugatua.

Estatu Batuen kasuan -irabazi asmorik ezaren ildotik batez ere-, etekinak ez banatzean jartzen da arreta, eta irabazi asmorik gabeko erakundeetan diru-sarrerak sortzeko alternatibatzat jotzen dira enpresa sozialak, erakunde horietara bideratutako funts publikoak murrizteko testuinguruan. Hala ere, garrantzizkoa da aipatzea enpresa sozialaren ikuspegi hori *helburu sozialeko negozio* izendatu litekeenetik hurbilago dagoen posizio batera bilakatzen ari dela azken urteotan, eta horren ezaugarri nagusia ez litzateke izango merkatuko diru-sarreraren bitartez finantzaketa lortzea besterik gabe, baizik eta enpresa konbentzionalen ohiko kudeaketa metodoak aplikatzea erakundearen eraginkortasun orokorra hobetzeko helburuarekin.

Herrialde anglosaxoietan bada ospe handia duen ikuspegi alternatibo bat, gero eta eragin handiagoa duena Europan, zeinak arreta jartzen duen, antolamenduaren eremuan baino gehiago, *helburu sozialarekin ekiteko ekimenean*, pertsona ekintzaileen ezaugarrietan eta izaeran, eta enpresaren sorreran eta arrakastan laguntzen duten baldintzetan. Ikuspegi hori, ingelesezko *entrepreneurship* izenaz ezagutzen dena, nazioarteko hainbat fundaziok bultzatzen dute⁷, eta lau ezaugarri hauek nabarmentzen dira horietan: a) *pertsona indibidualak azpimarratzen dituzte*, pertsona irudikor, pragmatikoak eta liderrak, eta ez horrenbeste erakundeak; b) enpresaburu sozialak arazoei *irtenbide berritzaileak* bilatzen diela eta berrikuntza sozialeko prozesuetan liderra dela hartzen du oinarri; c) *elkarrekikotasuna azpimarratzen du*, eskala handiko eragina, eta; azkenik, d) enpresaburu sozialak eta ekintzailetza sozialeko prozesuak *edozein sektoretan* eta edozein antolamendu modutan gerta litezkeela oinarri hartzen du, eta, hortaz, baita sektore pribatuan -enpresa konbentzionalak- eta sektore publikoan ere.

Ekonomia solidarioa izendapenak erreferentzia egiten dio, azken batean, gizarte garai-kideetan ekonomiak betetzen duen papera ulertzeko, XX. mendearen azken laurdenaz geroztik modu berriak sustatzen dituzten ikusmolde eta ikuspegi teorikoen, errealitate sozioekonomikoen eta erakundeetako multzo heterogeneo bati eta enpresaren eta erakundearen alorreko jardunbideei. Ildo horretatik, ekonomia solidarioa bizitza proiektu

⁷ Horien artean Ashoka, estatubatuar fundazioa, 1980an sortua, aitzindaria sektorean eta enpresaburu sozialei laguntzeko programak dituen mundu osoan (www.ashoka.org), eta Schwab Foundation for Social Entrepreneurship, 1998an sortutako erakundea, bazkideen artean enpresa multinazional ezagunak dituen, besteak beste, Goldman Sachs, Corporación Microsoft, Boston Consulting Group eta Ernst & Young (www.schwabfound.org).

batean egituratzen diren hainbat alderdi -ekonomikoak, sozialak, politikoak, kulturak eta ingurumenaren alorrekoak- hartzen dituen fenomeno konplexua da.

Kontzeptualizazio teorikoaren ikuspegitik, egile gehienak (Chaves eta Monzón, 2006; Guerra, 2004) bat datoz eta bi joera nagusi daudela azpimarratzen dute: *europar joera*, jatorri frantses eta belgikarrekoa funtsean -baina garrantzizko loturak dituen Québecekin-, eta *joera latinoamerikarra*, bereziki Txile, Argentina eta Brasilen garatua. Bi joera horiek garrantzizko ideiak dituzte komunean, baina baita alde nabarmenak ere batzuen eta besteen artean.

Europar, ekonomia solidarioaren kontzeptuaren sorrera eta bilakaera oso lotuta dago ekonomia sozialak eta haren antolamenduak eta enpresaren egitura klasikoak izandako bilakaerarekin -kooperatibak, mutualitateak eta elkarteak-; egitura horiek instituzionalizazio prozesu etengabea izan dute XX. mendean zehar, beren funtsezko balioak zalantzan jartzera⁸. Ekonomia sozialaren forma instituzionalizatu horien aurrean, zenbait egilek, zeinen artean nabarmentzen den Jean-Louis Laville soziologo frantsesa, *ekonomia sozial berria* terminoa baliatu zuten, nazioarteko egoera ekonomikoak eragindako krisiari eta aldaketei aurre egiteko 70eko hamarkadaz geroztik Europan sortutako erakundeak eta enpresak izendatzeko⁹.

⁸ Zenbait kooperatiben kasuan, merkataritzako ekonomian sartzeak eta merkaturaren enpresa kapitalistekin lehian jarduteak, gero eta gehiago hurbildu ditu kapitalaren logikara, kooperatibismoaren funtsezko filosofiaren kaltetan. Mondragon Taldearen inguruko euskal kooperatiben kasuan, interkooperazioaren bitartez nazioarteko bihurtzeko zailtasunen ondorioz, sistema duala hartu da, kooperatiba nagusiko enpresak horien mendeko kapital publiko eta pribatuko filialekin nahasten ditu, eta horrek zalantzan jartzen ditu planteamendu kooperatibo tradizionalak, eta Mondragon Taldea eta beste kooperatiba asko egoera zailean jartzen ditu (Errasti, et al., 2002)

⁹ Ekonomia solidarioaren lau antolamendu mota hartzen dituzte kontuan: gizarte larrialdiei erantzuten dietenak eta merkataritzaren eremutik kanpo egiten direnak -sukalde kolektiboak, baztertuak, etxegabeak, etab. gizarteratzea-; larritasun sozialei erantzuten dietenak eta merkataritzaren modura egiten direnak -gizarteratzeoko enpresak, lan egokituko zentroak, funts komunitarioak, garapen funtsak-; eta premiei eta helburuei erantzuten dietenak eta merkataritza moduan egiten direnak -enpresa sozialak, lan elkartuko kooperatibak, elikagai naturalen kooperatibak, nekazaritza biologikoa, birziklatzea, etab.-; Laville, Levesque eta Mendell (2005:19-20).

2. taula. Ekonomia sozial eta solidarioko ekintzaitzen zenbait ezaugarri

Ekonomia soziala	Non-profit organizations	Enpresa sozialak	Ekonomia solidarioa
<p>A tipologia</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ekonomia soziala - enpresa pribatuak, modu formalean antolatuak - erabakitzeke autonomia eta atxikitzeke askatasuna - merkatuaren bitartez bazkideen premiak asetzeko sortuak - ondasunak eta zerbitzuak sortuz, aseguratuz edo finantzatuak - bazkideen artean etekinak edo soberakinak banatzea eta erabakiak hartzea ez daude zuzenean bazkideek jarritako kapitalari edo kotizazioari zuzenean lotuta, eta boto bat dagokio bazkide bakoitzari <p>B tipologia</p> <ul style="list-style-type: none"> - erakunde pribatuak, modu formalean antolatuak - erabakitzeke autonomia eta atxikitzeke askatasuna - merkatuz kanpoko zerbitzuak ekoizten dituzte, familien alde - soberakinak, egongo balira, ezin dituzte horiek sortzen, kontrolatzen edo finantzatzen dituzten eragile ekonomikoek bereganatu 	<p>Sektorea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Karitatearen sektorea (charitable sector) - Sektore boluntarioa (voluntary sector) - Gobernu Kanpoko Erakundeen Sektorea (Nongovernmental organizations) - Irabazi asmorik gabeko sektorea (non-profit sector) <p>Ezaugarriak</p> <ul style="list-style-type: none"> - modu formalean antolatuak - botere publikoetatik bereziak, nahiz eta jaso ditzaketen diru-laguntza publikoak - autonomoak, autogobernurako ahalmenarekin - irabazi asmorik gabeak, hau da, merkatuan salerosian aritzetik etekinak ateratzen ez dituztenak, edo, halakorik lortuz gero, ezin dituzte banatu kide sortzaileen edo zuzendaritzako kideen artean - parte hartze boluntarioa edukitzea, hau da, askatasunez atxikitzeke aukera, alde batetik, eta lan boluntarioaren parte bat derrigorrez erakundearen egitea, beste alde batetik 	<p>a) Ikuspegi soziala Entrepreneurship</p> <ul style="list-style-type: none"> - pertsona indibidualak azpimarratzen dituzte, pertsona irudikor, pragmatikoak eta liderrak, eta ez horrenbeste erakundeak - enpresaburu sozialak arazoei irtenbide berritzaileak bilatzen diela eta berrikuntza sozialeko prozesuetan liderra dela hartzen du oinarri - elkarrekikotasuna azpimarratzen du, eskala handiko eragina, eta, azkenik, - enpresaburu sozialak eta ekintzaitza sozialeko prozesuak edozein sektoretan eta edozein antolamendu modutan gerta litezke, eta, hortaz, baita sektore pribatuan (enpresa konbentzionalak) eta sektore publikoan ere <p>b) EMES Sarea ikuspegia</p> <p>Joera ekonomikoko irizpideak</p> <ul style="list-style-type: none"> - jarduera etengabea ondasunen eta/edo zerbitzuen ekoizpenean - autonomia maila handia - arrisku ekonomiko nahiko nabarmena - soldatapeko lan mailaren bat <p>Joera sozialeko irizpideak</p> <ul style="list-style-type: none"> - komunitateari edo pertsona talde berezi bati mesede egiteko helburu esplizitua - pertsona talde batek abian jarritako ekimena - erabakitzeke ahalmena ez dago kapitalaren jabetzan oinarrituta - parte-hartzailea - ondasunen banaketa mugatua 	<ul style="list-style-type: none"> - Ekoizteko, kontsumitzeko eta banatzeko forma berri bat, norbanakoaren premiak eta premia orokorrak asetzeko irtenbide bideragarri eta iraunkor gisa proposatzen da, eta eraldaketa sozialeko tresna gisa sendotzea du helburu - pertsonen integritasuna hartzen duen ekonomia bere benetako helburuaren mende dagoela adierazten duena: norberaren, gizartearen eta ingurumenaren garapenerako oinarri materialez modu iraunkorrean hornitzea - jarduera ekonomikoaren kudeaketari gizartea eta herritarren arteko harremanak arautu behar dituzten balio unibertsala gehitzen dizkio: zuzentasuna, justizia, anaitasun ekonomikoa, gizarte solidaritatea eta zuzeneko demokrazia

Iturria: Lan honetarako egina, Pérez de Mendiguren, Etxezarreta, Guridi (2009) oinarri hartuta.

Ekonomia sozial berriaren baitako ekimen horien azterketa egiteko orduan bi ikuspegi daudela ikus liteke. Lehenena *ikuspegi makro* batetik abiatzen da, eta ekonomia solidarioak ekonomiaren, gizartearen eta politikaren arteko banaketa tradizionala ezeztatuko duen ekonomia ulertzeko modu berri bati egiten dizkion ekarpenetan jartzen du arreta, eta, orobat, jartzen du arreta ekoizpen, banaketa eta kontsumo moduen benetako demokratizazio bat egiteko aukera emango duen ekonomia ulertzeko moduan. Ildo horretatik, helburu soziala duten jarduera ekonomikoak aintzat hartzen dituen ikuspegi orokorretik haratago doa, eta gizarte aldatzeko borondate garbia eransten du, oinarri hartuta ekonomia ez dela soilik merkatura mugatzen, baizik eta kontuan hartu behar dituela Polanyiaren ekonomiaren hiru zutabeetan -merkatua, birbanaketa, nagusiki Estatuak egina, eta gizarte zibilak eragiten duen elkarrerikotasuna eta borondatzeko dohaintza- inspiratutako birbanaketaren eta elkarrekikotasunaren printzipioak. Ekonomia solidarioak gizarte aldaketari eta ekonomia eredu alternatiboak eraikitzeari buruzko eztabaida bultzatzen du, eta, horretarako, ekonomia feministaren eremuan, ekonomia iraunkorrean, finantza etikoaren eta solidarioen eremuan, bidezko merkataritzan eta kontsumo arduratsuan eta merkatu sozialean sortzen diren gaiak eta eztabaidak eransten ditu.

Ekonomia solidarioaren bigarren ikuspegi europarrak izaera askoz ere mikroagoa du, eta esperientzia zehatzetan jartzen du arreta. Erakundeen azterketan, horien funtzionamenduan, ezaugarrietan, forma juridikoen arteko aldeetan, bere jarduera zer sektoretara bideratzen duen, bere baliabideak kudeatzen dituen moduan edo bideragarritasuna ziurtatzeko izan ditzakeen arazoetan jartzen du arreta. Ikuspegi horretatik, kezka nagusia ez da eredu alternatiboak bilatzea, baizik eta gaur egungo ekonomian enpresa eta erakunde horientzat leku bat bilatzea, ohiko merkataritzako enprekin eta sektore publikoarekin batera bizitzeko aukera izan dezaten. Ikuspegi enpresarialagoa duen/antolakuntzari gehiago begiratzen dion horrek apaldu egiten du ekonomia solidarioaren zama politikoa, eta enpresa soziala esaten zaion horretan, aurretik azaldu den horretan, zentratutako literatura corpus handia sortzeko bidea ematen du.

Ekonomia solidarioaren kontzeptua laurogeiko hamarkadaren hasieran sortu zen Latinoamerikan, Luis Razeto¹⁰ ekonomista txiletarraren eskutik, eta laurogeita hamarreko hamarkadan zabaldu zen nazioarteko sareetara¹¹ eta amerikar kontinenteko biltzar eta hitzaldietan barrena. Haren arabera, ekonomia sozialak orientazio kritikoa eta eraldatzailea du argi eta garbi, gaur egungo ekonomiaren ezaugarri diren antolamendu egitura eta modu handiei buruz. Ikuspegi horretatik, solidaritatea, kooperazioa eta

¹⁰ Luis Razetok solidaritatearen ekonomiaren kontzeptua osatzen du *Economía de la Solidaridad y Mercado Democrático: La economía de las donaciones y el sector solidario* (lehenengo liburua), *Crítica de la economía, mercado democrático y crecimiento* (bigarren liburua) eta *Fundamentos de una teoría económica comprensiva* (hirugarren liburua) trilogian. Lanaren Ekonomiaren Programa. Humanismo Kristauaren Akademia. Txileko Santiago (1984).

¹¹ Bereziki RPESS (Ekonomia sozial eta solidarioa sustatzeko nazioarteko sarea <<http://www.ripess.org/?lang=es>>); RILESS (Ekonomia Sozial eta Solidarioko Ikertzaile Latinoamerikarren Sarea <<http://www.riless.org/es/>>) eta ALOE (Ekonomia Arduratsu, Anitz eta Solidarioarako Aliantza [antzinako Sozio Ekonomia Solidarioko Ardatza] <<http://aloe.socioeco.org>>

elkarrekikotasuna benetan errealitate sozialean dauden indar ekonomikoak dira, eta ikuspegi sozialetik eraginkorrak diren ekonomia egiteko modu berriak sortzeko aukera ematen dute.

Produkzioaren eremuan, lanak kapitalaren gainean duen nagusitasuna da ekonomia solidarioaren arrazionalitatea definitzen duen osagaietako bat, baina batez ere “*C Faktorea*” izenekoak¹², kategoria antolatzaile gisa duen lekuagatik. Banaketaren eremuari dagokionez, balio monetarioaz gainera, elkarrekikotasunaren logikak, birbanaketak eta lankidetzak baliabide produktiboen zirkulazioa eta esleipena zehazten dute. Azkenik, kontsumo ereduari dagokionez, gaur egun premiak asetzeko kultura aldatzen ari dela azpimarratzen du, eta giza premiak asetzeari dagokion ikuspegi osoago baterantz jotzen ari dela; era berean, nabarmentzen du soiltasunaren eta sinpletasunaren aldeko hautua egiten ari dela, kontsumo eredu eta ingurumenaren zaintza bateratzearen aldekoa, bidezko trukeen aldekoa eta ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko hurbiltasun handiagoaren aldekoa.

Ekonomia solidarioari buruzko pentsamenduaren sorreran bada bigarren foku bat, Brasilen, Unitrabalhoren¹³ inguruko ikerketa erakunde akademikoen garrantzizko sare baten eskutik, bai eta hainbat pentsalariren ekarpenen eskutik ere, hala nola, Marcos Arruda (2004, 2005, 2007, 2010), Paul Singer (2002, 2006, 2009) edo Luis Inacio Gaiger. Horien ustez, ekonomia solidarioak gizarte eraldaketa proiektu bat dakar berarekin, zeina saiatzen den gailentzen diren jardunbideei eta nagusi den kapitalismoari buruz ekonomia alternatibo bat eratzen; egitura ekonomiko garaikideen irakurketa oso kritikoa egiten dute, eta herri klaseen autokudeaketaren eta asoziazionismoaren alde egiten dute. Gizakiaren dimentsio indibiduala zein soziala hartzen dituzte kontuan, eta ez bakarrik aberastasun ekonomikoaren sortzaile eta ekoizle gisa, baizik eta aberastasun materialaren jabekide gisa eta natura zaintzearen erantzukide gisa.

Azkenik, Argentinaren kasuan, egile adierazgarriena José Luis Coraggio¹⁴ da. Haren lana tokiko garapenaren inguruko eremuetan oinarritu da, funtsean, eta, laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdeaz geroztik, ekonomia sozial eta solidarioaren eremuetan. Aurreko egileen antzera, baztertu egiten du merkatuko ekonomia eta haren printzipioak antolamendu sistema sozial gisa, eta ekonomia beste printzipio batzuen gainean finkatzeko premia aipatzen du: lana erreferentzia nagusia eta solidaritatea oinarritzko jarrera.

¹² C faktorea honako alderdi hauetan agertzen da: lanean den lankidetzak, lan indarraren eraginkortasuna areagotzen duena; ezagutzen eta informazioen erabilera partekatua, gizarte sorkuntzaren alorreko garrantzizko osagaia eragiten duena; erabakiak taldean hartzea, enpresaren osagai funtzionalak hobeto txertatuz, eta, horrela, murriztu egiten dira gatazkak eta horren ondoriozko kostuak; elkarbizitzako eta parte hartzeko premiak asetzeari, enpresaren eragiketarako ezin kontabilizatu litezkeen baina errealak eta eraginkorrak diren etekin erantsiak ematen dizkie kideei; enpresetan nahasturik dauden subjektuen garapen pertsonala, hainbat pertsonalitatearen arteko komunikazioaren eta trukearen ondoriozkoak.

¹³ Ikusi <<http://unitrabalho.org.br/>>.

¹⁴ Haren lana kontsultatzeko: <http://www.coraggioeconomia.org/jlc_publicaciones_ep.htm>.

3.1. Sarrera

Ekonomia sozial eta solidariotzat hartzen diren ikuspuntu eta ikuspegiak argitzeko eta zehazteko kontzeptu esparrua aurkeztu ondoren, atal honetan saiatuko gara ekonomia sozial eta solidarioaren eta tokiko giza garapenaren artean sor litezkeen harremanak eta loturak ezartzen; hau da, saiatuko gara azaltzen nola ekonomia sozial eta solidarioak oinarri dituen eta elikatzen duten helburuek eta printzipioek izan ditzaketen ondorioak eta zer ekarpen egin diezaioketen tokiko giza garapenari; eta, horretarako, XIX. mendeaz geroztik bai ikerketa gaiari buruz bai ekonomia konbentzionalaren hainbat alderdiri buruz jarrera kritikoa izan duten joera ekonomiko nagusiei egingo zaie erreferentzia.

Bigarren atal batean, ekonomia sozial eta solidarioak tokiko giza garapenari egin diezazkiokeen ekarpenak finkatzen saiatuko gara, gaitasunak sendotzearekin izan ditzaketen loturen bitartez eta, bereziki, Nussbaumek definitutako gaitasun nagusiekin dituen loturen bitartez. Saiatuko gara, halaber, azaltzen zer arrazoirengatik uste den ekonomia sozial eta solidarioak lagun dezakeela, modu egokienean, gaitasun nagusi horiek indartzen.

Azkenik, atal honetan ekonomia sozial eta solidarioak gaitasun kolektiboei egin diezazkiekeen ekarpenak zehazten saiatuko gara, modu kontzeptualean landu dituzten zenbait egilek definitutako hitzen bitartez, bereziki Baser eta Morganek Garapen Politiken Kudeaketako Europar zentroarentzat egindako lanen bitartez.

3.2. Ekonomia sozial eta solidarioaren alderdi arauemailea: ekonomia konbentzionalaren hainbat printzipio eta ikuspegi egindako zenbait kritika

Lehenengo kapituluan adierazi bezala, ezinbestekoa da nagusi den pentsamendu ekonomikoak modu sistematikoan baztertu duen alderdi arautzailea berreskuratzea, hark funtsezkotzat hartzen baitu merkatuaren printzipioa izatea gizabanakoen, taldeen, komunitateen edo herrialdeen arteko truke prozesu guztiak antolatu behar dituen; hau da, jarduera eta jardunbide ekonomiko guztien printzipio ekonomiko antolatzaile bakarra.

Ekonomia konbentzionalaren arabera, modu egoista eta arrazionalen jarduten du funtsean kontsumitzaileak, ondasunen eta zerbitzuen kontsumoa norberaren erabaki

bat baino ez da, eta hori merkatuan agertutako lehen tasun indibidualetan nabarmen-tzen da; merkatuak, bestalde, ez dio mugarik jartzen zer eta zenbat kontsumitzeko erabaki askeari, eta aurrekontuaren mugei baino ez dago lotuta -homo economicus-. Ikuspegi ekonomiko horretatik abiatuta, ez du zentzurik giza premien hierarkiari buruzko gogoeta egitea, izan ere, premia guztiek dute, kontsumitzaileen eskaeraren parte diren alderditik, balio bera, eta ezin esan liteke horien legez kototasun handiagoari edo txikiagoari buruzko ezer.

Produkzioaren ikuspegitik, enpresaburuek modu libre eta arrazionalen jarduten dutela pentsatzen da, etekin indibiduala maximizatzeko helburuarekin eta kontuan hartu gabe hirugarrenengan, gizartean eta planetan oro har sor litezkeen ondorioei buruzko bestelako gogoetarik; ondorio horiei, edonola ere, sistemaz kanpoko zerbait balira bezala eta merkatuaren bitartez edo inposaturiko sistema baten bitartez barneratuko balira bezala heltzen zaie. Ondasun pribatuaren eta enpresa askatasunaren eskubideak bermatzen dituen esparru juridiko batekin eta hori bultzatu eta arautuko duten erakundeekin osatzen da hori guztia, halako eran non giza baliabideak, gizakiaren lana eta kapitala salgaiak balira bezala tratatuko direla bermatu eta legitimatuko den, eta horien prezioak (errenta, soldata eta interesak) eskaintzaren eta eskakizunaren mekanismoaren bitartez finkatuko dira.

Laburbilduz, ikuspegi utilitarista horrek oinarri hartzen duen premisaren arabera, merkaturatzeko gai dira ez bakarrik trukerako ekoizten diren ondasunak eta zerbitzuak, baita giza gaitasun guztiak, natura, ezagutza eta gizarte harreman guztiak ere, hala nola, afektuak, zaintza edo kultura.

Ekonomia konbentzionalaren ikuspegi horren aurrez aurre, XIX. mendearen amaieraz geroztik ikuspegi hori zalantzan jartzen duten beste hainbat joera sortu dira, eta ekonomia ekologikotik, ekonomia feministatik eta hainbat joera kritikotatik datozen ekarpen eta ikuspegi berriekin osatzen joan dira XX. mendean zehar.

Kritika instituzionalista, XIX. mendearen amaierako eta XX. mende hasierako iparramerikar ekonomia instituzionalistaren joeratik ez ezik (Veblen, Mitchel eta Commons), Ekonomia Instituzional Berriaren joeratik ere badator (Williamson, North, Coase, Hodgson). Joera horien arabera, merkatua ez da erabilgarritasuna eta etekinak maximizatu nahi dituzten kontsumitzaile eta enpresaburu arrazionalen elkargunea; aitzitik, erakunde bat da, azken emaitzak baldintzatzen dituzten arauen, legeen, gizartean onartutako jokabideen eta abarren egitura jakinetan oinarritzen diren joko arau esplizitu zein implizituen multzotzat hartua dena. Beraz, jarduera ekonomikoak jarduera instituzionalizatutzat hartu behar dira, eragile ekonomikoen jarduera gidatzen eta erabakiei mugak jartzen dizkieten jardueratzat; eta ez dira hutsean gertatzen, modu guztiz erabakiorrean baldintzatzen dituen arau formal eta informalez osatutako egitura jakin batean baizik.

Era berean, XX. mendearen bigarren erdialdeko zenbait egile aipagarriak, hala nola, Galbraith, Scitovsky edo Hirschmanek, kritikatu egin dute ikuspegi hori, zientzia

ekonomikoaren muga tradizionalak gainditzen dituzten planteamenduen bitartez, eta beste gizarte zientzia batzuen eremuan barneratu dira, eta saiatu dira zalantzarik gabe jokabideak aldarazi eta, hortaz, marjinalismoak babesten duen kontsumitzaileraren subiranotasun printzipioari eragin diezaioketen garrantzi ekonomikoko hainbat gertaeren berri ematen, hala nola, marketina eta publizitatea (Ramos Gorostiza, 2004:210-214).

Beste egile batzuek, hala nola, K. Polanyi (1989 [1944])¹⁵, baztertu egiten dute autorerregulatutako merkatuaren ideia, izan ere, era honetako erakunde batek ezingo luke luze iraun gizakiaren funtsa eta gizartearen izaera suntsitu gabe, gizakiak deuseztatu gabe eta haien ekosistema basamortu bat bihurtu gabe. Egile horrek adierazten du merkatuko ekonomia ez dela konstante bat gizakien historian, eta kapitalismoaren sorrera eta kontsolidazioa ez zela, besterik gabe, ezinbesteko bilakaera izan, historikoki azken bi mendeetan kokatutako erabakien eta prozesuen emaitza baizik.

Merkatuari buruzko bere diskurtsoaren erdigunean dagoen ideia da jarduera ekonomikoa ez dela soilik *trukera* murrizten (merkatua); aitzitik, horrez gainera barnean hartzen ditu *birbanaketaren*, nagusiki Estatuak bideratua, eta *elkarrekikotasunaren* eta borondatezko dohaintzaren printzipioak. Feudalismoaren garaia arte Europa mendebaldean ezagutzen diren sistema ekonomiko guztiak daude elkarrekikotasunaren, birbanaketaren eta etxeko administrazioaren printzipioei jarraituz antolatuta, edo, bestela, hiru horien konbinazioari jarraituz (Polanyi, 1989:100).

¹⁵ Karl Polanyi XIX. mendearen bukaerako hungariar zientzialari soziala eta ekonomista politikoa izan zen 1944an *The Great Transformation: The Political and Economic Origins of Our Time* argitaratu zuena. Garai hartako Ingalaterrako gorabehera sozialak eta politikoak aztertzen ditu lan horretan, bai eta merkatuko ekonomia ezartzearen eta garatzearen ondorioz mendebaldeko munduan gertatu zen eraldaketa handia ere. Hain zuzen ere, merkatuko ekonomia da haren ustez munduko bi gerrak eta faxismoaren goraldia eragin zituzten gatazken jatorria.

3. taula. Ekonomia konbentzionalari egindako hainbat kritika

Ekonomia konbentzionala	Beste ikuspegi batzuk
<p>Gizartea oro har antolatzen duen merkatuaren printzipioa: trukerako ondasunak eta zerbitzuak; giza gaitasuna, natura (lurra salgai gisa); ezagutza; gizarte harremanak: afektuak, zaintza, kultura, etab.</p> <p>Kontsumitzaile egoista eta arrazionalak, beren erabilgarritasun pertsonala ondasunen eta zerbitzuen kontsumora lotuta maximizatzen dutenak, aurrekontuaren mugei baino lotzen ez zaiena. Modu libre eta arrazionalan ahalik eta etekinik handiena bilatzen duten enpresaburuak.</p> <p>Esparru juridikoak jabetza pribatua eta enpresa askatasuna bermatzen du.</p>	<p>Ekonomia instituzionalista eta ekonomia instituzional berria: Erakundeak gizabanakoen aurrez aurre, erakundeak erregela, arau, tradizio eta ohitura informal zein formaltzat hartuta (Veblen, Mitchel, Commons, North, Coase, Willimanson, Hodson).</p> <p>K. Polanyi: autoerregulatutako merkatuaren ukazioa. Jarduera ekonomikoa trukeak (merkatua), birbanaketak (bereziki Estatuak egin) eta elkarrekikotasunak eta gizarte zibilak egindako dohaintza boluntarioek osatzen dute.</p> <p>Ekonomia ekologikoa: ekosistemarekin eta gizarte sistemekin lotzen den sistema irekia (Georgescu-Roegen, Daly, Martínez Alier, Naredo, Max-Neef).</p> <p>Ekonomia feminista: lanaren kontzeptua erreproduzioaren eta zaintzaren eremura zabaltzea (Carrasco, Orozco, etab.).</p> <p>Ekonomia komunitarioa: osagarritasuna, elkarrekikotasuna, erlazionalitatea, birbanaketa (Huanacuni, Temple).</p> <p>Sen, Doyan eta Gough, Nussbaum, Max-Neef, Hinkerlammert, Temple: kritikak giza premien ikuspegi utilitari. Lehentasunek edo gustuek ezin dute izan giza premien adierazle. Premiak nahien aurrez aurre. Giza gaitasunak.</p>

Iturria: lan honetarako egina.

Hautatutako analisiaren ikuspegiari buruzko bigarren kritika bat ekonomia feminis-taren eremutik dator (Carrasco, 1994, 2011; Pérez Orozco, 2004, 2012), hirurogeiko hamarkadaren amaieraz geroztik etxeko lanari buruz izan ziren eztabaiden ondorio gisa, zeinetan adierazten zen maila monetizatuak eta ez-monetizatuak hartu behar direla kontuan, eta defendatu behar dela ekonomiak ez diela soilik begiratu behar merkatuei, eta soldatapeko lanari, etxeei eta etxeko lanari ere erreparatu behar diela. Bestalde, laurogeita hamarreko hamarkadan garrantzi berezia izan zuten bizitzaren iraunkortasunaren kontzeptuari buruzko ekarpenek, iraunkortasuntzat hartuz giza bizitzaren mantenuari dagozkion arazoak konpontzeko gizarte bakoitzak dituen moduak. Biztanleriaren zahartze bizkorak, emakumeak poliki-poliki lan merkatuan sartu izanak eta joera neoliberalagoko politikek biztanleriaren erreproduzio krisia deitua ekarri dute ondorioz, eta, horren eraginez, ekonomia feministak, ekofeminismoarekin elkarturik, hurbilpen berrietara jo du, hain zuzen ere, afektuen eta laguntzen kateekin zerikusia duten hurbilpenetara.

Hirugarren kritika ekonomia ekologikoaren eremutik dator¹⁶, zeinak baztertu egiten duen sistema ekonomikoa itxia dela adierazten duen ikuspegia, horren arabera merkatuak ez baititu aintzat hartzen baliabide naturalak, energia eta hondakinak, eta, hortaz, sistema ekonomikotik kanpo kokatzen dira. Horren aurrez aurre, ekonomia ekologikoak sistema ekonomikoa irekia dela uste du, kanpotik eguzkiaren energia eta haren forma eratorriak, zein materialak, jasotzen ditu, eta, aldi berean, beroa kanporatzen du eta hondakinak botatzen ditu ingurumenara; hau da, ekonomia gizartearen azpimultzo bat dela adierazten du, eta hura, aldi berean, biosferaren azpimultzoa, materia eta energia fluxuak eta giza ekonomia sistemaren baitan sartuta daudelako. Gainera, giza kapitala eta kapital manufakturatua kapital naturalen osagarri direla pentsatzen da, eta ez trukagarriak, izan ere, giza kapitala eta kapital landua nahitaez kapital naturaletik datoz, era batera edo bestera.

Azkenik, kritika berriago batzuk Andeetako ekonomia komunitariotik datoz (Huancuni, 2010), zeinak pentsatzen duen gaur egungo ekonomia kapitalista indibidualista, antropozentrikoa, bizitzatik berezia, homogeneizatzailea, hierarkikoa, lehiakorra, kontsumoari eta kapitalari zuzendua dela, eta horren aurrez aurre eredu ekonomiko berri bat proposatzen du, bizitza modu berri bat, orekan, harmonian eta bizitzaren errespetuan oinarritua, elkarrekikotasun, birbanaketa eta arrazionaltasun printzipioen gainean.

Ekonomia konbentzionalari egiten zaizkion kritikak, era berean, ekonomia horrek bere gain hartutako giza premien ikuspegi utilitarista bideratzen dira, nahiz eta Ramos Gorostizaren ustez (2004:217), ez duten orain dela gutxi arte eragin aipagarriarik izan mundu akademikoan, izan ere, premien alorrean sartzeak ekarriko luke, nahitaez, beste gizarte zientzia batzuekin harremanetan jartzea, hala nola, soziologiarekin eta psikologiarekin, eta premiak kategoriatan bereizteko edozein ahaleginek etikaren eremura eramaten gaitu, modu barkaezinean, eta ekonomistek betidanik saihestu dute eremu hori, iritzien aurrean objektibotasuna edo neutraltasuna edukitzeko asmoz. Gaur egun, ordea, giza premien gaiak gero eta garrantzi handiagoa du pobrezia, garapenaren eta ingurumenaren iraunkortasunaren inguruko arazoekin zerikusia duten eremuetan.

Giza premien ikuspegi utilitaristari egiten zaizkion kritiken oinarrian dago lehentasunak edo gustuak ezin direla irizpide orientagarriak izan kontsumoari buruzko erabakiak hartzeko unean; aitzitik, premiaren irizpideak eduki behar du, hain zuzen ere, lehentasuna, eta ondasunen eta zerbitzuen jabetzarekin, erabilerarekin eta kontsumoarekin zerikusia dutenetatik haratago dagoena, eta bizitzaren erreproduktzioarako beharrezkoak diren beste premia material eta ez material batzuetara zabaltzen da.

¹⁶ Honako hauek hartzen dira ekonomia ekologikoa ekonomiaren eremu zehatz gisa hartu izanaren aitzindaritzat; Nicholas Georgescu-Roegen (1906-1994) errumaniar ekonomista; bere lan nagusia honakoa da: *The Entropy Law and the Economic Problem*. Harvard University Press. Cambridge, Massachusetts, 1971. Latinoamerikaren eremuan, berriz, Joan Martínez Alier, José Manuel Naredo eta Federico Aguilera, eta Artur Manfred Max-Neef txiletarra daude.

Hinkerlammert eta Morak (2006:26-28,29) ikuspegi neoklasikoak erakutsitako lehentasunen teoria kritikatzan dute, uste baitute erabilgarritasun abstraktua erakusten dutela, beren arteko ordezkapen harreman perfektu baten hipotesian ezkatatuta, eta hori guztiz absurdua da, kasu gehien-gehienetan, bizitzaren edo heriotzaren artean erabaki behar bada. Haien iritzian, premiak badaude (eta hori berezkoa dute gorputzezko subjektu bizi guztiek), lehentasunek edo gustuek ezin dute izan helburuetara bideratzeko azken irizpidea; izan ere, oinarrizko irizpideak premiarenak izan behar du, hain justu. Eta premia horiek lehentasun hutsengatik ordezkatzan direnean, ahaztu egiten da bizitzaren erreproduzioaren arazoa, hau da, bizitzara bideratutako ekonomia baten abiapuntua.

Pentsamendu ekonomiko neoklasikoaren ekintza arrazionalari buruzko teoria baliabidea-helburua harremanaren teoria batera mugatzen dela pentsatzen dute, zeinaren azpian dagoen arrazionaltasun instrumentalaren irizpidea, erabilgarritasunaren kalkulu hedonistaren (utilitarismoa) eta merkataritza harremanen (eraginkortasun formala) berezko irizpidea, eta haien ustez, halaber, gogoeta teoriko oro eta gizakiaren praxis oro bitartekoa-helburua arrazionaltasun instrumental horretara mugatzearen ondorioz gizadia iraunkortasun krisi batera abiatu da, eta krisi horrek, gaur egun, mehatxupear du bere bizi iraupena eta izaera bera. Bitartekoa-helburua arrazionaltasunak bide eman behar dio giza bizitzaren zirkuitu naturalaren errespetuaren arrazionaltasun osoago bati, arrazionaltasun erreproduktibo esaten dutenari, eta, horretarako, beharrezkoa da gizakien arteko aitortpena, izaki naturalak eta beharrak dituztenak baitira; horrek, halaber, Nussbaumek (1988) proposatutako arrazoi praktikoaren postulatura eramaten gaitu.

Laurogeita hamarreko hamarkadako ekarpen nagusietako bat Max-Neef et at-ena (1993) da. Haien ustez, gizakiak funtsezko premia gutxi ditu, eta sailkatu egin litezke¹⁷; berberak dira kultura eta garai historiko guztietan, eta premia horien asetzaileak dira horiek aldatzen direnak, kultura edo gizarte batek premiei ematen dien modalitate menderatzaile gisa hartuak. Adierazten dute, halaber, asetzaileak ez direla eskura dauden ondasun ekonomikoak, baizik eta izateko, edukitzeko, egiteko eta egoteko moduak irudikatzen dituztenez, gizakien premiak gauzatzen laguntzen duen orori egiten diotela erreferentzia. Ondasunak eta zerbitzuak objektu eta tresna hutsak dira, asetzaile baten eraginkortasunari eragiteko aukera ematen dutenak.

¹⁷ Ikuspegi axiologikotik abiatuta egindako giza premien sailkapen bat proposatzen dute, bederatzi kategoria asetzaile hauen arabera: Bizi iraupena (osasun fisikoa, osasun mentala, elikadura, lana, ugaltzea); Babesa (zaintza, gizarte segurantzak, familia); Afektua (autoestimua, adiskidetasunak, bikotea, laztantzea, etxea); Ulertzea (kontzientzia kritikoa, irakasleak, ikastea, eskolak); Parte-hartzea (egokitzea, eskubideak, erantzukizunak, laguntzea); Aisia (arduragabetasuna, jokoak, atsegin hartzea, denbora librea); Sorkuntza (pasioa, sormena, trebetasunak, eraikitzea, asmatzea); Identitate (kide izatea, ohiturak); Askatasuna (autonomia, erabakia, asaldura, eskubide berdintasuna). Eta ikuspegi existentzialetik, lau kategoriatan: Izatea (ezaugarri pertsonalak eta taldeari dagozkionak); Edukitzea (erakundeak, arauak, mekanismoak, tresnak); Egitea (ekintza pertsonalak edo kolektiboak) eta Egotea (espazioak eta giroak). Asetzaileei dagokienez, egileek beraiek proposatzen dute bost mota hauek bereiztea helburu analitikoetarako: a) bortxatzaileak edo hondatzaileak, b) pseudo-asetzaileak, c) asetzaile inhibitzaileak, d) asetzaile bereziak eta e) asetzaile sinergikoak. Ikusi Ver Max-Neef, M.; Elizalde, A.; Hoppenhayn, M. (1993). *Desarrollo a escala humana. Conceptos, aplicaciones y algunas reflexiones*. NORDAM/Icaria. Bartzelona. 58-59. or.

Doyal eta Gough (1994), Gough (2008) ere giza premien¹⁸ gaiari heltzen diote, pertsona guztiek giza premia berberak dituztela egiaztatzeko helburuarekin, baina hori guztiz bateraezina da ikuspegi erlatibistarekin. Giza premien kontzeptu unibertsal baten alde egiten dute, eta modu esplizituan kritikatzeko erlatibismo kulturala eta funsgabetzat hartzen dituzte haren forma garaikide guztiak, ekonomia ortodoxoak zein liberalismoak, marxismoak, inperialismo kulturalaren kritikoek defendatuak, demokrazia erradikalaren teoretan eta soziologia fenomenologikoan.

Azkenik, laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, giza garapenaren gaitasunen ikuspegiak garrantzi handia hartu zuen, Sen eta Nussbaum izanik sustatzaile nagusiak. Senen jatorrizko formulazioaz geroztik ekarpen berriak ezagutu dira, ordu arteko ikuspegiak zabaltzen eta eztabaida nabarmen aberasten lagundu dutenak, bereziki Nussbaumen (2000, 2003, 2006) gaitasun nagusien proposamenak. Hark Senek baino arauzko erreferentzia objektibo erradikalagoa eta, batez ere, zehatzagoa txertatu zuen, Senek zehazgabetasun handiagoa izan baitu pertsona bat ongizatearen atarian egon dadin zer gaitasun ase behar diren hautatzeko eta neurtzeko orduan, arrazoibide gisa hartuta, bere agentziaren ideian oinarrituta, talde bakoitzari dagokiola gaitasun multzoa baloratzea, orekatzea eta konpentsatzea, arauzko irizpideen eta beste batzuen arabera.

Nussbaumek oinarritzko gaitasunen zerrenda zehatza finkatzen du, eta pentsatzen du zer gaitasun zabaldu behar diren eta zer funtzionamendu sustatu behar diren; zer gaitasun eta zer funtzionamendu diren baliozkoenak. Gaitasunen ikuspegiaren bere bertsioren oinarritzko ideia da izatearen duintasunaren eta duintasun hori merezi duen bizitzaren ikusmoldea eduki behar duela funtsean eta bizitza horrek benetako giza funtzionamenduei dagokionez libre egon behar duela.

Ekonomia sozial eta solidarioak aipatutako kritika horietako asko bere egin eta bere oinarri teoriko eta doktrinaletan eransten ditu. Era horretara, Coraggiok (2011:44-45) dio ekonomia soziala ekintza espazio bat dela, abantaila materialak bilatzen dituzten gizabanako utilitaristez osatuta egon beharrean, era askotako gizabanakoez, familiez, taldeez eta komunitatez osatuta dagoela, praktikak bideratutako erakundeen barruan mugitzen direnak edo konponbide boluntarioen bitartez hitzartuta daudenak; horiek guztiek solidaritatearen eta lankidetzaren balioen bitartez jarduten dute, eta ekoizleen beraien eta beraien komunitateen (gehienek oinarria lurraldea, etnia, gizartea edo kultura dutelarik) premiak asetzeko erabilerazko balioak sortzen dituzte, mugarik gabeko irabazirako eta kapital pilaketarako joerarik gabe.

¹⁸ Doyal eta Goughen ustez (1994), giza premiak helburu unibertsal batzuetan zehazten dira: kalte larrien prebentzioa, parte-hartze soziala, parte-hartze kritikoa; oinarritzko premiak: biziiraupena, osasun fisikoa, gaitasun kognitiboa eta emozionala; ulermen kulturala, parte hartzeko aukerak; autonomia kritikoa, asetzaila espezifikoko batzuk: elikagaiak eta ura; ostatu babeslea; kaltegarria ez den ingurunea; jaiotza tasaren eta jaiotzen kontrola; aseguruak; osasun zaintza egokia; haurtzaro segurua; lehen mailako harreman nabarmenak; segurtasun fisikoa; segurtasun ekonomikoa; hezkuntza egokia; eta premiak asetzeko beharrezkoak diren aurrebaldintza sozialak: eskubide zibilak/politikoak eta parte-hartze politikoa; eskubide ekonomiko/sozialak.

Gogoeta horiek oinarri hartuta, Coraggioaren ustez (2011:345), ekoizpen, banaketa, zirkulazio eta kontsumo prozesuen sistema da ekonomia, eta prozesu horiek, printzipioen, erakundeen eta jardunbideen bitartez, komunitateak eta gizarteak antolatzen dituzte une historiko bakoitzean, kide guztien eta gaur egungo belaunaldien eta etorkizunekoekin premiak eta legezko nahiak asetzeko oinarri materialak lortzeko, halako eran non bizitzaren erreprodukzioa eta garapena ahalbidetzeko, oreka psikikoei, pertsona artekoei, komunitate artekoei eta naturarekikoei eusten diete.

3.3. Gaitasunen ikuspegia, eta ekonomia sozial eta solidarioa

Ekonomia sozial eta solidarioak oinarrian dituen printzipio eta balioak, bai haren bertsio kooperatiboan¹⁹ bai Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak (REAS, 2011) edo Coraggiok (2011) azaldutako bertsioan, bat datoz eta bat egiten dute, halaber, Senek zein Nussbaumek, nagusiki, giza garapenarentzat funtsezkotzat hartutako gaitasunak sendotzen laguntzeari dagokionez. Printzipio horietako bakoitza gehiago edo gutxiago dator bat hainbat gaitasunekin, halako eran non datozen ataletan saiatuko garen ekonomia sozial eta solidarioa arautzen duten printzipioen eta gaitasun nagusien artean dauden harremanak zehazten.

Nussbaumek (2008:125-126) defendatzen dituen hamar gaitasun zentralen artean bi dira nagusiak: *arrazoi praktikoa* eta *afiliazioa*, bi horiek antolatzen eta hartzen baitituzte beren baitan gainerako guztiak; horrek ez du esan nahi, ordea, bi helburu horietara murriztu behar direnik gainerako guztiak.

Arrazoi praktikoa ongiaren ikuspegi bat irudikatzeko eta bizitzaren beraren planteamenduari buruzko gogoeta kritikoan konpromisoa hartzeko gaitasunari dagokio. *Afiliazioaren* bitartez, bestalde, besteekin eta besteei begira bizitzeko gaitasuna deskribatzen da, gainerako gizakien kezka aitortzeko eta haiengatik kezkatzeko gaitasuna, nork bere burua besteen egoeran irudikatzeko gaitasuna eta, era berean, egoera horren aurrean errukia sentitzeko gaitasuna. Afiliazioak esan nahi du, berebat, nork bere burua errespetatzeko eta apaldua ez izateko, izaki duindu gisa hartua izateko, oinarri sozialak edukitzea, eta, horretarako, arrazan, sexuan, sexu orientazioan, erlijioan, kastan, etnialan eta jatorri nazionalan oinarritutako diskriminazioaren kontra babestea. Lanean, gizaki bat bezala lan egiteko gai izatea, arrazoi praktikoa erabiliz eta beste langileekiko onespina erakutsiz.

Ekonomia sozial eta solidarioaren hainbat printzipio dira, gure ustez, zuzen-zuzenean eta modu nabarmenean gaitasun zentral horiek areagotzen laguntzen dutenak. Lehenik, ekonomia sozial eta solidarioak baiesten du pertsona guztiak duintasun bereko subjektuak direla eta eskubidea dutela mendekotasunean oinarritutako harremanen mende ez egoteko, edozein dela ere pertsonaren maila soziala, generoa, adina, etnia,


¹⁹ Kooperatibismoaren zazpi printzipioak honako hauek dira: a) atxikipen irekia eta boluntarioa; b) bazkideen kontrol demokratikoa; c) bazkideen parte-hartze ekonomikoa; d) autonomia eta independentzia; e) hezkuntza, gaikuntza eta informazioa; f) kooperatiben arteko lankidetzeta; eta g) erantzukizun soziala (ICA, 1995:16-18).

jatorria, gaitasuna, etab. (zuzentasunaren printzipioa, REAS 2011). Ez du inoren lanaren esplotazioa onartzen, ezta indarkeria fisikoak edo gosearen beldurrak behartutako inolako esklabotasun eta mendekotasunik ere, eta inola ere ez besteen lanaren etekinaz jabetzea (Coraggio, 2011:386). Pertsona guztiek eskubide eta aukera berberak dituzten gizartea da, haren ustez, gizarte justuagoa eta pertsonen eta taldeen arteko desberdintasunak kontuan hartzen dituen.

Ekonomia sozial eta solidarioak lana jartzen du jarduera ekonomikoaren eta giza jardueraren erdi-erdian. Lana faktore produktibo huts gisa hartu beharrean, *giza dimentsioa* ematen dio lanari, pertsonak direlako ekonomia solidarioan protagonista nagusiak, eta, hala direnez, beren gaitasunen garapenaren bitartez hazi behar dute -ekimena eta sormena, pentsatzeko, komunikatzeko, kudeatzeko, talde lanerako, arriskuak hartzeko, ikertzeko, etab.-. Gizartean sartzeko eta gizarteratzeko faktore bat ere bada, bai eta pertsonaren autoestimua zutabe bat ere, bizitzako dimentsio guztiekin lotuta dagoena. Baina lanak badu, halaber, *dimentsio sozial bat*, izan ere, pertsonen gaitasunak komunitatearen eta biztanleriaren zerbitzura jartzea eskatzen du, jarduera modu guztiak kontuan hartuz, horien barnean harturik etxeko lana edo pertsonen zaintzaren eremuan egiten diren lanak.

Bestalde, *dimentsio politikoa* ere bada, ekonomia sozialak ondorioz baitakar pertsona guztiek edukitzea baliabideak lortzeko aukera sozial guztietara jotzeko eskubidea; lanerako eta elkarrizketa sozialerako funtsezko eskubideak; biztanleriaren premiak (hurbilenekoen premietatik hasita) asetzeko ekoitzi behar denaren plangintzan parte hartzeko eskubidea; langileek eta gizarte zibilak ekoizpen baliabideen jabetzan parte hartzeko eta garrantzizko erabakietan parte hartzeko eskubidea. Azkenik, *dimentsio ekonomikoa* du, pertsonen premia ekonomikoak aseko dituzten lan baldintza duinen eta kalitatezko enpleguaren alde egiten duelako; bai eta merkataritzan eta ekoizpen harremanetan trukea baloratzeko forma adostuak eta zuzenak aintzat hartzen dituelako ere.

Ekonomia sozial eta solidarioak lankidetzaren bultzatzen eta lehenesten du (lankidetzaren printzipioa, REAS 2011) merkatuaren ekonomian nagusi den lehiakortasunaren aurrez aurre, bai erakundeen barruan zein kanpoan, bai gizartean oro har, eta beste erakunde eta organismo publiko zein pribatuekin lankidetzan jardutea bilatzen du. Lekuan lekukoaren garapen harmonikoan oinarritutako gizarte eredu bat eraikitzea proposatzen du, merkataritza harreman bidezkoetan, berdintasunean, konfiantzan, erantzukidetasunean, gardentasunean eta errespetuan oinarrituta. Ekonomia solidarioa etika parte-hartzaile eta demokratikoan oinarrituta dago, eta ikaskuntza eta pertsonen eta erakundeen arteko lan kooperatiboa sustatu nahi ditu, erabakiak taldean hartzeko prozesuen eta, orobat, erantzukizunak erdibanaturik hartzeko prozesuen bitartez, ahalik eta horizontaltasun handiena bermatzeko eta, aldi berean, bakoitzaren autonomia errespetatzeko moduan. Lankidetzaren prozesu horiek eremu guztietara zabaldu behar dira: herriak, eskualdeak edo autonomia erkidegoak, estatua eta mundua, eta normaltasunez antolatu behar dira, balio horiek bizitzen eta sustatzen dituzten sareen bitartez.



Iturria: Lan honetarako egina.

Ekonomia sozial eta solidarioak lankidetzaren kultura sustatzen du, eta, horretarako, enpresa kooperatiboak bultzatzen ditu, eta, orobat, bultzatzen du sare horizontaletan, parte-hartzailetan, demokratikoetan, konfiantzazkoetan oinarritutako sareak; gizartean bertan sustatu nahi diren lankidetzaren kultura eta balio horiek beraiek ezauzgarrituko dituzten sareko harremanak egituratzea bultzatzen du; elkar aberasteko jardunbide egokien informazioa sozializatzea; ikasteko eta hazteko ezagutzak partekatzea; erakunde baliabideak, eremu fisikoak edo ondasun materialak partekatzea. Informazioak, ezagutzak, esperientziak, kezka, porrotak, etab. partekatzen jartzen direnean, harreman gardenak eta konfiantzazkoak sendotzen dira; izan ere, gertaeren oinarrietan sortzen da konfiantza. Sareak garatzeko eta elkarrekin hazteko erdigune izango diren sareak sustatzea hobetu egiten ditu sare horien baitako kideen arteko harremanak, eta taldeko ekimenak, bai barnera begirakoak bai kanporakoak, sortzen ditu beste erakunde batzuekin, eta ekimen, proiektu eta kausa komunetan parte hartzen dute, ingurunean eragin politiko nabarmena edukitzeko aukera bilatuz.

Horretarako, Silvak adierazten duen moduan (2010:77), ezinbestekoa da nabarmen-tzea zer garrantzi duen hezkuntza kooperatiboak eta balioetan oinarritutako hezkuntzak, hezkuntzatik abiatuta iritsi baiditeke pertsona bat ulertzea lankidetzaren tresna eraginkorra dela bizi baldintza hobek sortzeko eta taldean egiteko. Hezkuntza horretatik abiatuta antzeman liteke zein premia den gizarte harremanen eta harreman politikoaren artean etengabeko oreka gordetzea eta horrela uler liteke benetan zein beharrezkoa den demokrazia, parte-hartzea eta berdintasuna babestea. Eta hori guztia

dagokion gardentasun informatiboarekin osatu behar da, eta hori ez da beti existitzen ekonomia sozial eta solidarioko erakundeen beraien baitan, eta ez bakarrik erakundearen barrualdearekin zerikusia duten alderdiei dagokienez, baita harreman ekonomiko, politiko edo sozialen inguruko mundu konplexuari dagokionez ere.

Nussbaumen (2008:123) gaitasun nagusietako batek, *ingurunearen kontrolari dagokionak* hain zuzen ere, bi alderdi ditu. Ikuspegi politikotik, bizitza bera gobernatzen duten hauteskunde politikoetan modu eraginkorrean parte hartzeko gaitasuntzat hartzen da, parte-hartze politikorako eskubidea edukitzeko gaitasuntzat. Eta ikuspegi materialetik, jabetza bat -bai lurrari bai ondasunei dagokiona- edukitzeko gaitasuna, benetako aukera gisa, besteeikiko berdintasunean oinarritutako jabetzak edukitzeko eskubide gisa.

Enpresaren munduan gero eta gehiago eskatzen da, oro har, parte-hartzea, uste baita pertsonen inplikazioa funtsezkoa dela enpresari balioa eransteko, eta, hortaz, langileei konpromiso handiagoa eskatzen zaie, bai eta enpresaren helburuen alde gehiago emateko ere. Edonola ere, parte-hartze hori, gehien-gehienetan, lanpostuaren antolamendu teknikora mugatuta gelditzen da, eta ez da eremu benetan garrantzizkoetara zabaltzen, esate baterako, enpresaren helburuen eta estrategien definiziora, jabetzara, kontrol politikora eta emaitzetara.


Autokudeaketa ekonomikoan parte hartzea modu zabalago eta koherenteagoan ulertzen da, eta parte-hartze instituzionala edo politikoa enpresaren gobernu organoetan²⁰ txertatzen du, kudeaketaren parte-hartzearekin osatu²¹. Autokudeaketak parte-hartzearen bi eremuak bateratu eta erabateko parte-hartzerantz abiatu daiteke, errazagoa eta koherenteagoa baita lan metodo parte-hartzaileak sustatzea modu demokratikoan kudeatutako enpresetan, izan ere, erakundearen parte hartzeko aukerak sinisgarriagoa egiten dute lanpostuan inplikatzeko sustapen lana (Lanki, 2004:25-27).

Baina haratago joanez gero, ekonomia sozial eta solidarioak bizitzaren eremu guztietan parte hartzeko eskubidea defendatzen du -kultura, gizartea, ekonomia, politika, etab.-; pertsona gisa dagozkigun maila guztietan parte hartu eta erabakiak hartu ahal izateko beharrezkoa dugun informazio eskuragarria, argia eta sarria edukitzeko eskubidea, eta gardentasun informatiborako eskubidea, hari buruzko iritzia emateko eta parte hartzeko

²⁰ Bazkideek modu bidezkoan laguntzen dute beraien kooperatibetako kapitalean eta kapital hori modu demokratikoan administratzen dute. Kapital horren parte bat, gutxienez, kooperatibaren jabetzakoa da, eta bazkideek, normalean, emandako kapitalaren gaineko ordainsari mugatu bat jasotzen dute, halakorik badago. Bazkideek helburu hauetarako guztietarako edo hauetakoren baterako esleitzen dituzte soberakinak: bazkideen onurarako, kooperatibarekin egindako eragiketen arabera; bazkideek onartutako beste jarduera batzuei laguntzeko eta kooperatibaren garapenerako, erreserbak sortuz, eta horiek, alde edo guztiz, zatietan izan litezke (ICA 1995:53-54).

²¹ Kooperatibak bazkideek kontrolatutako erakunde demokratikoak diren aldetik, modu aktiboan parte hartu behar dute beren politiken definizioan eta erabakiak hartzeko prozesuan, izan ere, kooperatibak ordezkatzeko eta administratzeko hautatu diren gizon eta emakumeak dira bazkideen aurrean ardura dutenak. Lehen mailako kooperatibetan, bazkideek boto eskubide berberak dituzte (bazkide bat/boto bat), eta beste maila batzuetako kooperatibak prozedura demokratikoen bitartez antolatzen dira.

baldintza baita, bai eta denon onerako neurriak hartzeko eskubidea ere, bai gure erakundeetan bai gizartearen estamentu guztietan (berdintasunaren printzipioa, REAS 2011).



Iturria: Lan honetarako egina.

Parte-hartze kooperatiboari dagokionez, Silvak gutxienez hiru modu hartzen ditu kontuan (2010:84-85) bertara iristeko: parte-hartze naturala, erabilpeneko harremanaren arabera parte-hartzea eta antolamenduan eta kudeaketan parte hartzea. Parte-hartze naturalak bazkide bakoitzak erakunde kooperatibo batekin modu aske eta boluntarioan elkartzeko berezko eskubideari egiten dio erreferentzia, eta, bere ekarpen ekonomikoaren bitartez, elkarkortasunak ematen dituen onura ugarietara iristeko eskubideari: atxikimendurako askatasuna, jabetzaren demokratizazioa, herritartasunaren eraikuntza, produktuak eta zerbitzuak erabiltzeko aukera eta enpresa zuzendaritza eta kontrol organoen bitartez kudeatzeko aukera. Harremanean parte hartzeak adierazten du erakundeak eskaintzen dituen produktuak eta zerbitzuak erantzukizunez, konpromisoz eta modu iraunkorrean erabiltzeko eskubidea dagoela. Eta hirugarren eremua, eta garrantzitsuena beharbada, zuzendaritzan eta kudeaketan parte hartzeari dagokio, bai zuzendaritzako kide gisa bai oinarrizko guneko kide gisa. Parte-hartze mota horren bitartez, bazkideek enpresa solidario baten administrazioari eta zuzendaritzari dagokionez dituzten gaitasunak ulertzen eta garatzen dituzte.

Hala ere, parte-hartzea oro har, eta ekonomia sozial eta solidarioaren eremuan bereziki, oso gai konplexua da (Lanki, 2004:31-32; Chaves eta Sajardo, 2004:31-52), eta

hainbat arrisku, zailtasun eta erronka ditu, nola diren ekonomizismorantz lerratzea -merkatuan modu eraginkorrean funtzionatzea, beste helburu sozial eta ingurumena- ren alorreko batzuk ahaztuta-, bere baitan ixtea, gainerako indar autokudeatzaileekin loturarik egin gabe -gizarte proiektu zabalago bat dela ahaztuz-, edo demokraziaren aurrean teknokrazia nagusitzea, bereziki merkatuan kompetentzia maila handia du- ten erakundeetan. Erabaki enpresarial konplexuek langileak organo subiranoetatik urruntzea eragin dezakete, alderdi instituzionala zerbait formala bihurtzea eta zuzen- daritza teknikoa izatea -hau da informazio eta gaitasun handiagoa duena- enpresaren orientabide nagusiak markatzen dituen. Errealitate gero eta konplexuago batean, mo- mentuan bertan hartu behar dira erabakiak, eta eraginkortasunak gomendatu dezake gutxi batzuen esku uztea horiek osatzeko eta proposatzeko gaitasuna. Era horretara, ordea, botere errealeko eremuak sor litezke, nahiz eta erabakiak formalki organo de- mokratikoek onartuak izan behar duten. Beti presente dagoen joera da, eta, hori in- dargabetzeko, parte-hartzea sustatu behar da, informazioan eta gardentasunaren eta etengabeko hezkuntzaren bitartez.

Bazkideen parte-hartze ekonomikoa erronka edo desafioa da, bertako jardueretarako ezinbestekoa baita finantzaketa. Ekonomia sozial eta solidarioaren oinarrietako bat irabazi asmorik ez edukitzea da, baina horrek ez du esan nahi jarduerak ez duenik soberakinik sortu behar, baizik eta soberakin horiek erakundea bera sendotzera edo ekonomia sozial eta solidarioaren beste ekimenetara bideratu behar direla. Gainera, soberakin horiek kapital instituzionala eratzen lagundu behar dute, hau da, kapital sozialaren -banakako ekarpenak- edo kapitalaren derrigorrezko erreserbaren parte ez den ondarea, funts independente baten, bazkide guztien funts baten, parte den onda- rea baizik.

Kooperatiben kasuan, inbertsioa eta kapitalizazioa kooperatibaren kideen esku daude, eta horrek mugatu egiten du beren ekarpenetarako, aktiboetarako eta jasotako iraba- zietarako funts izan litezkeenak. Kapital soziala osatzen ez duten bazkideen ekarpenak -bazkideek sozietate kooperatiboari ekar diezaioketen maileguak- epe luzerako finan- tzaketa mota bat dira, eta abantaila handiak ditu sozietate kooperatiboarentzat (Bel eta Fernandez, 2002:119), arindu egiten duelako beste finantzaketa modu batzuen mendekotasuna eta hobetu egiten duelako sozietate kooperatiboaren irudia hirugarren- en aurrean.

Azken erronka batek zerikusia du beste mota bateko enpresetan eta gizartean oro har dauden genero desberdintasunekin. Ekonomia sozial eta solidarioan, printzipioetako bat genero berdintasuna da, eta, Ribas eta Sajardoren arabera (2004:99-101), ekono- mia sozialaren sektorean ere garrantzi handiko desberdintasunak daude gizonen eta emakumeen artean, erakunde motaren arabera -kooperatiba, lan sozietatea, gizarte ekintzako erakunde irabazi asmorik gabea, etab.-, batzuk eta besteak lan egiten duten jarduera sektorei eta adarrei dagokienez edo sexu bateko eta besteko kideen artean dauden kontratazio modu ohikoenei dagokienez. Ekonomia sozial eta solidarioko erakundeak ez daude beren jardueraren ingurunetik kanpo; aitzitik, beren ezauga- rri funtsezkoenetako bat da gizartetik sortzen direla, gizartearen premiei erantzuteko;

gizarteko baldintzen eraginpean daude, hortaz. Teoria neoklasikoaren eta giza kapitalaren teoriak ez bezala, uste osoa dute teoria feministak edo soziologikoak direla egoera hori ondoen aztertzen eta azaltzen dutenak, beren argumentuak familian eta gizartearen egitura patriarkalean oinarritzen dituztelako, zeinetan emakumeak egoera okerragoan dauden lanaren, gizartearen eta familiaren eremuan. Ekonomia sozialeko erakundeak, ekonomiaren gainerako enpresak eta erakundeak bezala unean uneko errealitate sozialaren barnean murgilduta daudenez, tradizio kultural edo erlijiosoaren, ohituren eta gizartean nagusi diren estereotipoen eraginpean daude.

Azkenik, Nussbaumek (2008:123) proposatzen dituen gaitasunetako bat aipatuko dugu, hain zuzen ere, behar besteko errespetuarekin eta kontuz bizitzea animaliekin, landareekin eta naturarekin (beste espezie batzuk), hori zuzenean lotuta dagoelako ekonomia sozial eta solidarioaren beste dimentsio batekin, ingurumenari dagokionarekin, hain zuzen.

Ekonomia sozial eta solidarioaren ikuspegitik (REAS, 2011:6; Coraggio, 2011:381), giza jarduera produktibo eta ekonomiko oro dago naturarekin lotuta; beraz, ezinbestekoa da aliantzak finkatzea. Naturarekin harreman ona edukitzea aberastasun ekonomikoaren iturri da; horrenbestez, beharrezkoa da giza ekintza guztietan ingurumenaren iraunkortasuna txertatzea, ingurumenaren gaineko eragina (arrasto ekologikoa) ebaluatuz etengabe, eragin hori nabarmen murrizteko borondatearekin eta, era horretara, ekoizpen eta kontsumo modu iraunkor eta bidezkoetara bideratzeko asmoarekin, eta nahikotasunaren eta soiltasunaren etika bultzatuz.

Iraunkortasunari buruzko ideia horiek ekoizpen garbiaren babesean, energia berri-ztagarrien erabilera eta praktika eta ekimen arduratsuen erabilera gauzatzen dira, nola diren murrizketa, berrerabilpena eta hondakinak birziklatzea eta, orobat, ingurumenaren alorreko hezkuntza eta ikerketa sustatzea. Era berean, kontsumo arduratsua jarrera koherentea dela defendatzen da, zuzentasun sozialean eta ingurumenaren iraunkortasunean oinarritutako irizpideekin koherentea, izan ere, horren bitartez ez da soilik premia bat asetzen; ondorio ekonomikoetan (merkatu sozialeko banaketa sareak, finantzaketa alternatiboa, banka etikoa), sozialetan (Iparra-Hegoa oreka, gizarteratzea, lan baldintza duinak, tokiko garapena...) eta ingurumenaren iraunkortasunaren alorrekoetan (kutsadura murriztu, baliabideak agortzea saihestu, beharrezkoak ez diren ingurumen-kostuak saihestu...) inplikazio positiboak dituzten prozesuak ere bultzatzen dira.

Ekonomia sozial eta solidarioak (REAS, 2011) elikadura subiranotasuna defendatzen du, lurralde bakoitzak bertako nekazaritza eta abeltzaintzaren eta elikaduraren alorreko politikak definitzeko eskubidea duelako, lurraldeak babestuz eta gure planetaren oreka eta datozen belaunaldiekiko derrigorrezko solidaritatea lortzeko beharrezko bioaniztasuna babestuz; beharpena, baliabideen erabilera arrazionaltzat hartua, hazkuntza zehaztugabearen dinamikari ihes eginez; eta defendatzen du, orobat, lurraldearen antolamendua, nekazaritza eta abeltzaintzari, saneamenduaren alorreko zerbitzuei, garraio ez kutsatzaileei, etab. eusteko biztanleriaren eta espazioaren arteko banaketa proportzional egokia kontuan hartuko duena.

Gendronen ustez (2004:21), ekonomia solidarioa eta garapen iraunkorra antzeko printzipioetan oinarritzen dira, besteak beste, autonomia, premietan zentratutako garapena, erresilientzia eta demokrazia; biek proposatzen dituzte gizartearen premiak asetzeko bide alternatiboak, eta biek galdetzen diote beren buruari ongiaren kontzeptuari eta interes publikoaren esanahiari buruz. Gendronen ustez, ezin hitz egin liteke ingurumena zein gizartea eta ekonomia kontuan hartuko duen garapen iraunkorrari buruz ekonomia beste era batera ikusi behar dela adierazi gabe, hau da, alderdi ekonomikoaren eta sozialaren arteko harremana birpentsatu gabe; sistema ekonomikoa lege natural aldaezin baten moduan ikusteari eta arau ekonomikoak gizarte konstruktua eta hautaketak direla onartzeari uko egin gabe, eta, gizarte jarduerak direnez, askotarikoak dira eta eraldatu litezke eta gizarte baten balioen hautaketari egokitu.



Iturria: Lan honetarako egina.

Beraz, Gendronen ustez (2004:25), ekonomia sozialaren eta garapen iraunkorraren arteko giltzadura formalizatu liteke, baina horietako bakoitzari buruz hartzen den definizioaren arabera: askoz ere handiagoa izango da ekonomia soziala sektore baten

ordezkaritzat baino gehiago eremu baten ordezkaritzat hartzen bada eta garapen iraunkorra ingurumenari soilik dagokion ikuspegiak haratagoko ikuspegi batetik hartzen bada. Garapen iraunkorra eragile multzo baten ekintzaren emaitza da, eta, hortaz, gizarte dimentsio garbia du. Ingurumenaren alorreko arazoak erakusten dute sistema ekonomikoak ez duela ongi funtzionatzen eta urria dela, kolokan jartzen dute eremu ekonomikoaren autonomia, eta ezinbestekoa da gizarte eragileek parte hartzea: ordezkari politikoak eta erakundeetakoak, mundu zientifikoa, gizarte mugimenduak eta ingurumenaren alorrekoak, industriaren ordezkariak, etab. Ingurumenaren alorreko arazoak nabarmen uzten dute beharrezkoa dela ekonomiaren ikuspegi soziala hartzea, ekonomia sozialari atxikitako ikuspegi teorikoak iradokitzen duen moduan, eta ekonomia soziala garapen iraunkorrera iristeko baliabidearen lekuan jartzen dute, hain zuzen ere, eraldaketa prozesu sozio-ekonomikoaren inguruan zentratutako balioak dituelako ekonomia sozialak.

Gendromentzat (2008:28-29), gainera, ekonomia sozialaren eremuko erakundeak -irabazi asmorik gabeak eta sektore kooperatibokoak- garapen iraunkorraren funtsezko eragileak dira, aldaketa eragiten dutelako, erakundeen, gizartearen edo ekonomiaren mobilizazioa bultzatzen baitute, gobernuei, eta baita enpresei ere, presioa eginez beren jarduerak hobe ditzaten ingurumenaren babesaren alde. Kontsumitzailearen jokabidea aldatzeko helburua ere hartzen dute kontuan, eta ingurumenarentzat hain kaltegarriak izango ez diren bizitza estiloak bultzatzen dituzte, eta, kasu honetan, gizarte ekonomia erakundeak mugimendu berdearen jardueren antzekoak dira, gizartea eraldatzeko gizarte kontzientzia sortzeko gaitasuna dutelako. Alabaina, ez da ahaztu behar ingurumenaren alorreko ondasunek eta zerbitzuek osatzen dutela leku askotan ekonomia sozialaren barnean presentzia handiena duten eremuetako bat, bereziki hondakinen kudeaketari dagokion alorrean, irtenbide berritzaileak proposatu direlako alor horretan murrizteko, berreskuratzeko eta birziklatzeko, nahiz eta murrizketa eta zailtasun handiak dituzten aurrez aurre, ekonomia sozialeko enpresek eskakizun bikoitzari erantzun behar baitiote: batetik, errentagarritasun ekonomikoa lortu behar dute -enpresa pribatuek bezala-, eta, aldi berean, garapen iraunkorraren eskakizunei erantzun eta pertsoneri eman behar diete lehentasuna.

Azkenik, azpimarratu beharra dago ekonomia soziala beharrezko baldintza dela garapen iraunkorrerako, baina ez dela nahikoa. Teorian, ekonomia sozialaren printzipio eta balioak bat datoz, nabarmen gainera, garapen iraunkorraren printzipioekin; baina bat etortze horiek, zenbaitetan, ahuldu egiten dira praktikaren mailara jaisten direnean, ingurune printzipioak bigarren mailara igarotzen direlako erabakiak hartzeko unean, eta ekonomia sozialeko enpresek ez dituzte nahitaez ingurumenari dagokionez iraunkortzat har litezkeen jokabideak edukitzen.

3.4. Ekonomia sozial eta solidarioa eta gaitasun kolektiboak

“Tokiko Giza Garapenaren gai teorikoak eta metodologikoak” izenburuko sarrerako agirian, ongizatearen taldeko dimentsioari heltzeko unean, *gaitasunak garatzeko* -ez bakarrik gaitasun indibidualak eta kolektiboak, baita sistema edo gizarte osoaren

gaitasunera zabaltzen direnak ere- proposamenak tokiko giza garapenaren (GG) alderdi kolektiboak aztertzeko eta praktikan jartzeko tresna teoriko eta politiko gisa duen gaitasuna aipatzen zen. Hala ere, agirian aipatzen den moduan, ez dago kontsentsurik GG ikuspegia zehaztasunez definitzeko orduan.

Nazioarteko erakunde nagusiek -Garapenerako Laguntza Batzordea (GLB)/Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea (ELGA), Nazio Batuen Garapen Programa (NBGP) eta Munduko Bankua (MB)- estrategien barruan txertatzen dute nagusiki garapenerako lankidetzeta. Estrategia horietan guztietan, prozesuak izaera endogeno handia du (jabetzea da horren gauzatze nagusia) eta banakako gaitasunak zein gaitasun kolektiboak hartzen ditu bere baitan, hiru maila hauetan bereiziz: pertsonak, erakundeak eta gizartea oro har. NBGPen ustez, gaitasunen garapena tresna baliagarria da giza garapenaren ikuspegia aurrera eramateko, eta horrek aurrerabide handia dakar gaitasunen ikuspegiaren proposamenean barruan, giza garapenaren alorreko helburuak pertsonak, erakundeak eta gizarteak egoera eraldatzeko duten gaitasunen arabera lortzen direla uste baita.

Ekarpen interesgarrienetako bat Baser eta Morganek (2008:22-34) egina da, gaitasunaren hainbat adiera biltzen baitituzte²². Haien arabera, sistema batek balio publikoa sortzeko duen trebetasun orokorra da gaitasuna, eta honako bost ezaugarri hauek zehazten dituzte: a) Jabekuntza eta identitatea: erakunde edo sistema bati bizirik irauteko, hazteko, dibertsifikatzeko eta konplexua izateko aukera ematen dioten propietateak. Horretarako, sistemek boterea, kontrola eta espazioa behar dute; b) Trebetasun edo gaitasun kolektiboa: sistema bati funtzionatzeko, balioa emateko, harremanak ezartzeko eta bere burua berritzeko aukera ematen dioten ezaugarrien konbinazioa; c) Sistemen fenomenoari atxikitako egoera edo baldintza bat da: jarrera, baliabide, estrategia eta trebetasun ukigai eta ukiezinen konbinazio konplexu bat biltzen duen dinamikatik sortzen da; d) Egoera potentzial bat da; e) Balio publikoa sortzen du: talde edo sistema batek bizitza publikoari ekarpenak egiteko trebetasuna.

Baser eta Morganentzat (2008:26), berriz, honako hauek dira bost gaitasun nagusiak: a) konpromisoa eta erakarpena; b) zeregin edo funtzio logistikoak betetzea, zerbitzuak eta teknikak eskaintzea; c) harremanak edukitzea eta laguntzak eta baliabideak lortzea; d) egokitzea eta berritzea; eta, e) koherentzia eta aniztasuna orekatzea.


Horietako lehena -konpromisoa eta erakarpena-, funtsezkotzat hartzen dutena hain zuzen ere, jardueren garapenean konprometitzeko eta parte hartzeko gaitasunari dagokio, erakundeek beren kabuz espazioak sortzeko eta bultzatzeko duten gaitasunari, eta, orobat, uste sendoak, ausardia eta identitate kolektiboa edukitzeko gaitasunari.

²² Pertsonen, erakundeen eta sozietateen gaitasuna funtzioak betetzeko, arazoak konpontzeko eta helburuak modu iraunkorrean definitu eta iristeko (NBGP); Pertsonen, erakundeen eta sozietateen gaitasuna arazoak konpontzeko, informazioan oinarritutako hautaketak egiteko, lehentasunak definitzeko eta beren etorkizunerako asmoak egiteko” (Munduko Bankua); Pertsonen, erakundeen eta sozietateen gaitasuna beren gaiak modu askiesgarrian kudeatzeko” (OCDE/GLB).

Ekonomia solidarioak (REAS, 2011) pertsonak beren erakundeetan duten parte-hartzea bultzatzen du, ondo informatuta egoteko duten eskubidea, eta horrek hobetu egiten du bertako kideek erakundearen jardueri buruz konpromisoa hartzeko eta parte hartzeko duten gaitasuna, eguneroko lanerako estimulu handiagoak dituzte, etorkizuna modu kolektiboan pentsatzen dute, eta nortasun kolektibo hori sendotzen dute; nortasun horrek aukera emango du, autobaieztapenetik abiatuta, erakunde gisa harremanak edukitzeko eta testuinguruan eta beste eragile batzuekiko harremanean bizirik irauteko.

Ekonomia sozial eta solidarioak (REAS, 2011; ICA, 1995) pertsonak eta lana kokatzen dituen prozesuaren erdigunean, ekimenerako eta sorkuntzarako gaitasunak hobetzea bultzatzen du -pentsatzeko, komunikatzeko, kudeatzeko, taldean lan egiteko, arriskuak hartzeko, ikertzeko, eta abarretarako gaitasunak-, pertsonen eta erakundearen arteko ikaskuntza eta lan kooperatiboa bultzatzen du eremu guztietan -herrietan, eskualdean edo autonomia erkidegoan, estatuan eta nazioartean-, lankidetzaren, elkarrenganako konfiantzaren, konpromisoaren, talde nortasuna sendotzen duten balio partekatuen, kide izateko sentimenaren kultura sortzen dute, eta garrantzizko osagaia da hori testuinguru konplexuetan bizirik irauteko eta beste erakunde batzuekin batera taldean errealitate berrietara egokitzen laguntzeko, ideia eta bide berriak bilatuz; halaber, zatitzea galaraziko dion koherentzia ekar diezaike erakundeari.

Kooperatibismoak, bazkideei kontrol demokratikoa eta parte-hartze ekonomikoa edukitzeko aukera ematen dien neurrian, haiek bertako politiken definizioan eta erabakiak hartzeko prozesuan modu aktiboan parte har dezaten bultzatzen eta bermatzen du; horrela, erakundearekin eta haren printzipio eta helburuekin gehiago identifikatzeko baldintzak eskaintzen ditu eta konpromiso eta identitate kolektiboa indartzen ditu. Kooperatibismoak eta kooperatibek, era berean, bertako kideen, kargu hautetsien, kudeatzaileen eta langileen hezkuntza eta prestakuntza bultzatzen dute -eta bultzatu behar dute-, erakundearen garapenari modu eraginkorrean laguntzeko. Era horretara, kideek erakundearen jardueretan konpromisoa hartzeko eta parte hartzeko duten gaitasuna hobetzen du, eta, orobat, laguntzen du nortasun kolektiboa sendotzen (ICA, 1995).



Iturria: Lan honetarako egina.

Ekonomia sozial eta solidarioak, era berean, gaitasun kolektiboak sendotzen laguntzen du, haiek tokiko garapen iraunkor eta komunitarioan parte hartzea bultzatzen baitu, eremu geografiko beraren barruan eta beste zabalago batzuetan mikroa eta makroa, tokikoa eta globala lotuko dituzten egitura sozial eta ekonomikoko beste erakunde batzuekin sarean parte hartuz (ingurunearekiko konpromisoaren printzipioa, REAS 2011:6). Horrek esan nahi du inguruneko irtenbide sozioekonomikoekin konprometitu behar dutela -merkatu soziala, banka etikoa, bidezko merkataritza, garapen komunitarioa, etab.-, eta, horretarako, gizarte egituraren sorrera sendotu eta aurretik dagoena suspertu eta indartu behar dute. Ekonomia sozial eta solidarioak ingurunearekiko duen konpromiso horrek zuzenean laguntzen du erakunde baten konpromisoak hartzeko eta parte hartzeko gaitasunak areagotzen eta berentzat eta beste erakunde batzuentzat eremuak sortzeko eta indartzeko gaitasunak indartzen, lurralde bereko beste erakunde batzuek parte hartzen duten sare horizontalen bitartez. Horrela, bizirik irauteko, baliabideak bilatzeko, aurre egiteko eta testuinguruetara egokitzeko sinergiak eta laguntzak sortzen ditu, oso egoera zailtan askotan.

Hirugarren gaitasun kolektiboa -harremanak eduki eta babesak eta baliabideak lortu-funtsezkotzat hartzen da testuinguru jakin batean eta beste eragile batzuekin batera bizirik irauteko. Ikuspegi horretatik, gaitasuna ez dagokio soilik emaitzak lortzeari,

baizik eta erakundeak bizirik iraun ahal izateko beharrezkoak diren harremanak sortzeko eta horiei eusteko gaitasuna izateari.


Ekonomia sozial eta solidarioa lurraldean, bertako herritar eta erakundeetatik sortzen da, eta ikuspegi horretatik baino ezin da ulertu; zentzu horretan, garrantzizko osagaiak ditu komunean tokiko garapenarekin, nahiz eta aldeak ere badituen²³. Lurraldea (Vázquez Barquero, 1990; Alburquerque, 2004, 2006) tokiko garapenaren subjektua da, lurralde eremu berean bizi, erlazionatu eta antolatzen diren eragile sozialen multzotzat hartuta, beren historia, kultura, identitatea eta erakundeak eraikiz, ingurune naturalaren eta bere baliabideen aprobetxamendutik abiatuta; muga geografiko edo unitate administratibo batetik haratago proiektu estrategiko komun baten inguruko parte-hartzea posible egiten duen espazioa da. Era berean, eragile sozioekonomiko publiko eta pribatuen arteko -administrazio publikoak, tokiko erakundeak, enpresa erakundeak, gizarte mugimenduak, eskualdeko unibertsitateak, ikerketa zentroak eta ezagutza teknikoak zabaltzeko zentroak, gobernuz kanpoko erakundeak- itun sozialerako eremua da, dauden baliabide endogenoen aprobetxamendu eraginkor eta iraunkorragoa egiteko, gaitasun endogenoak sustatzeko eta lurraldean ingurune berritzailea sortzeko.

Autokudeaketa ekonomikoak (Lanki, 2004:22-23) komunitateen premiei erantzuteko joera du, garapen komunitarioaren zerbitzu kontzientera egoteko joera. Kapitalak bultzatutako eredu globalizatzaile baten aurrez aurre, autokudeaketa ekonomikoak herrietan, komunitateetan, giza geografia zehatzetan, lurrean ditu sustarriak. Kapitala lana ekartzen duten pertsonen dagokienez eta pertsona horiek, gainera, komunitate edo lurralde jakin bateko kide direnez, enpresaren jarduera produktiboa lurralde horretan errotzen da. Espazio geografikoa-giza espazioa ezin da trukatu; enpresa autokudeatuaren izateko arrazoiaren erdigunea da. Enpresa autokudeatuak ahalmen berezia du bere eragina enpresaren eremutik haratago proiektatzeko eta gizarteko beste eremu batzuekin konprometitzeko, eta, horrela, enpresa ekintza komunitatearen erabateko garapenaren zerbitzura jartzen du, eta loturak sortzen ditu beste esperientzia sozial eta kultural batzuekin, ekologiarekin, generoaren gaiarekin, denboraren banaketarekin edo garapen ereduarekin zerikusia duten gizarte mugimenduekin.

Ekonomia sozial eta solidarioak lurraldeen garapen ekonomiko endogenoari laguntzen dio, joera handiagoa dutelako etekinak sortzen diren lurraldean bertan horiek

²³ Garapena hazkuntza ekonomiko gisa hartzea, ekoizpen sistema garbiak, baina baita kontsumo arduratsua edo beste alderdi batzuk ere (hala nola, elikaduraren mailako subiranotasuna) kontuan hartuko dituen, ekonomia iraunkor errealaren defentsaren aurrez aurre. Bestalde, tokian tokikoak nazioartekotzearen aurrean betetzen duen zeregina eta duen garrantzia, ez dena ulertzen tokiko eremuek globalizazio prozesuaren erronkei eta mehatxuei aurre egiteko duten lehiakortasun premien erantzun gisa, baizik eta lurraldean kokatzen diren pertsonen bizitzaren erreproduktzioa, ekoizpena, banaketa, kontsumo eta finantzaketa harreman hitzartuak lortzeko, justizian, lankidetzan, elkarrekikotasunean eta elkar laguntzan oinarrituta. Era berean, aldeak daude ESSak defendatzen duen irabazi asmoak egoteari edo ez egoteari dagokionez, irabazi asmoa duten erakundeen etekina maximizatzearen aurrez aurre. Azkenik, lankidetzaren zentzua ez da eskalako ekonomiak sortzeko eta lehiakortasun baldintza hobeak lortzeko taldekatzera mugatzen, baizik eta taldean tokiko garapen harmonikoan oinarritutako gizarte eredu baten eraikuntzan, bidezko merkataritza harremanetan, berdintasunean, konfiantzan, erantzukidetasunean, gardentasunean eta errespetuan.

berriro inbertitzeko, eta metatzeko prozesuak tokian bertan bultzatzen dituelako (García Serrano eta López Serrano, 2011:30-32). Era berean, gaitasun handiagoa du tokian tokiko baliabideak mobilizatzeko -tokiko ezagutzak, sareak, gizarte kapitala, konfiantza, ospea, etab.-, eta gaitasun izugarria du kultura ekintzailea eta enpresa egitura sortzeko eta zabaltzeko, bai ekonomiaren alorrean bai gizartean. Era berean, gaitasun handiagoa du jarduera ekonomikoa tokiko premiekin -komunitatearen hurbileko zerbitzuak, gizarte zerbitzuak, kulturalak, etab.- eta/edo tokiko egitura produktiboarekin lotzeko. Era berean, Estatuaren dezentralizazioaren eta modernizazioaren testuinguruan, asko lagun dezake lurraldeek autonomia handiagoa izan dezaten, entitate horietako kontrol eta erabaki moduak lurraldeko bertako gizarte zibilean kokatzeko joera duelako.



Iturria: Lan honetarako egina.

Gaur egungo eztabaida garrantzitsuenetako bat enpresek txertatuta dauden eta beren jarduerak egiten dituzten gizarteekin duten erantzukizunari buruzkoa da. Kezka horrek, kasu gehienetan, zerikusi handiagoa du emaitzen kontuan duen eraginarekin beren jokabideek enpresa barnean eta kanpoan dituzten eraginei buruzko benetako kezkararekin baino. RSE boluntario, mugatu eta askotan zalantzan jarritakoaren aurrez aurre, ekonomia sozial eta solidarioan bere eguneroko egitekoari atxikita dago

gizarte erantzukizuna, etengabe sortzen dutelako ongizatea beren bazkide, enplegatu eta komunitatearentzat, oro har, eta, horrela, etengabeko orekari eusten diote funtzio ekonomikoaren eta sozialaren artean (Silva, 2010:80). Ildo horretatik, esan liteke kooperatiba batek egiten duen lan guztia enpresaren erantzukizun soziala dela, ekonomia solidarioaren funtsean bertan baitago. Kudeaketa kooperatiboa gizartearen zerbitzura dago, eta, hortaz, erakundearen erabateko garapena zaindu behar dute, dagokion dimentsio eta harreman guztietan. Erantzukizun soziala enpresa kooperatibo guztien abiapuntua eta garapena da, ez amaierako puntua, beste enpresa modu batzuetan gertatzen den bezala; erronka bat eta etengabeko ekimen estrategia bat, lagungarria kudeaketa sozio enpresarialaren garapenerako, bazkide bakoitzaren bizi kalitatea sortzeko eta enpresak denboran zehar iraunkorrak izateko.

Autokudeaketa ekonomikoak berezkoa du erantzukizun soziala (Lanki, 2004:28 - 29), ekonomian egoteko eta enpresa egiteko modu orokor bat dakarrelako berarekin, berezko ahalmena du konpromiso soziala garatzeko -ingurunearen premia sozial, kultural eta ekologikoak- eta eremu horretatik jarduera ekonomikoari mugak jartzeko. Autokudeaketa ekonomikoak, gainera, mugak jartzen dizkio merkatuaren logika guztiz ekonomizistari, eta enpresen jarduera estandar sozial, demokratiko eta ekologikoen arabera antolatzen du jarduera: mugak jarri eskakizun tekniko-ekonomikoen ondorioz hazkunde enpresarial neurritz gainekoari (baldintza hobekak zer eta nola ekoitzi zehazteko), fabrikatzeko prozesuetan ingurumena zaintzeko sentiberatasuna landu, lan baldintza duinak eskaini eta pertsonen garapenaren aldeko ahalegin berezia egin.


Laugarren gaitasunak -*egokitzea eta autoberritzea*- zerikusia du aldaketa testuinguruei aurre egiteko gaitasunarekin, egoera oso zailetan askotan, eta lotu ohi da norbanakoaren eta taldearen ikasteko gaitasunarekin, barne elkarrizketa sustatzeko gaitasunarekin, erakundea berriro kokatu eta eratzearekin eta ideia berriak eta ibiltzeko bide berriak bilatzearekin.

Ekonomia sozial eta solidarioak erresilientzia gaitasun handia du, eta krisi egoeretara egokitzeko gaitasuna duela erakutsi du, bereziki lanpostuak sortzeari eta enplegua babesteari dagokion eremuan²⁴. Krisiak Espainian 2008-2011 urteetan mikroenpresa kooperatiboetan eta, modu berezian, esku-hartze sozialaren sektorean izan duen era-

²⁴ Kooperatiben Munduko Aliantzaren arabera, 1.000 milioi bazkide kooperatibo daude ia sektore gehienetan banatuta: nekazaritza, eraikuntza, industria eta zerbitzuak, eta 100 milioi enplegu sortzen dituzte, etxe multinazionalek baino %20 gehiago (2012). Ikusi <http://www.aciamericas.coop/Hechos-y-cifras-del-cooperativismo>. Espainiaren kasuan, ESEKEn arabera (2011:74-75), 2008. urteaz geroztiko krisiaren aldi gogorrenean, ekonomian oro har milioika enplegu galdu ziren bitartean, ekonomia sozialaren sektorean enplegu garbia sortu zen (%1 baino gehiago), nahiz eta %6,8ko beherapena izan zen entitateetan eta %24,6koa fakturazioan. Egoerak, oro har, hobea ematen du kooperatiba sozialentzat eta lan elkartukoentzat, enpresa konbentzionalekin konparatuz gero, batez ere kooperatiba gehiago dituzten eta maila horretan esperientzia handiagoa duten herrialdeetan (CICOPA, 2011:2). Bestalde, COCETak (2010:69) adierazten duen bezala, Gizarte Ekimeneko Lan Kooperatiboetan ere enplegua sortzen jarraitu dute, nahiz eta ekonomian kontrako egoerak bizi izan, lurraldean, udalerrietan gelditu ziren, eta, horrela, enpresa egiturari eutsi diote, lurralde kohesioa sortuz eta, bertan egonda, proiektu berriak eraginez.

ginari buruzko ikerketa batean, Sabin et al.-ek (2010:2) ondorioztatu zuten enpresa kooperatiboek hobeto egiten ziotela aurre krisiari, gainerako enpresa egiturek baino, eta horren erakusgarri da enpresa gutxiago itxi direla eta lanpostu gutxiago suntsitu direla. Jokabide hobe hori azaltzen duten funtsezko faktoreek *-C faktorea-* enpresa horien printzipio eta balioekin dute zerikusia, merkatuaren baldintzetara egokitzeko eta soldatak eta lan baldintzak enpresaren diru-sarrera gutxiagoetara egokitzeko gaitasun handiagoarekin.

Díaz Foncea eta Marguallok (2010) adierazten dute, bestalde, enplegu kooperatiboa ez dela horrenbeste Barne Produktu Gordinaren (BPG) gorabeheren mendekoa, izan ere, hazkunde garaian kooperatibak ez dira beste erakunde batzuk adina hazten; baina, krisia gertatzen denean, horien suntsipena txikiagoa da ekonomian, oro har. Era berean, egiaztatu dute sozietate kooperatiboetan kalitate handiagoko enplegua eskaintzen dutela, eta hori argi ikusten da atzeraldietan enpleguari eusteko orduan sendotasun handiagoa izan dutelako; hori horrela da ez horrenbeste kooperatiben sorreraren eta langabezia egoeran irtenbide bat bilatzearen arteko harreman estuagatik, baizik eta egiten duten lan eskaintzaren kalitateagatik, izan ere, beste enpresa mota batzuek baino lan baldintza hobeak bultzatzen dituzte langilearentzat -kaleratzeko arrisku txikiagoa, etab.-.



Iturria: Lan honetarako egina.

Langabezia egiturazko arazo gisa agertzen den mundu globalizatu batean, autokudeaketa ekonomikoak lanpostuak sortzeko, mantentzeko eta babesteko ahalmena du, berezko bokazioa baitu (Lanki, 2004:25-25); izan ere, enpresetako bazkide eta nagusi direnez, enpresaren etorkizunarekin lotzen dute beren etorkizun pertsonala eta familiarra. Zentzu horretan, krisi garaian, kooperatibek errentagarriak ez diren enpresak mantentzeko gaitasun handia dutela erakutsi dute²⁵.

Azken bi hamarkadetan, gainera, ekonomia sozialeko enpresek berrikuntza sozial handiak egin dituzte eta zabalkundean diren sektore berrietan sartu dira, hala nola, gizarte zerbitzuak eta gizarteratzeko eta lan munduan sartzeko zerbitzuak. Espainiaren kasuan, zerbitzu horiek erraztasunak izan dituzte lege erreformen bitartez -genero berdintasunaren legea, gizarteratze eta mendekotasun enpresak-, nahiz eta ezin den ahaztu aurre egin behar diotela kapitaleko enpresa gero eta gehiago egotearen erronkari eta gizarte zerbitzuak gero eta gehiago merkaturatu direla (Sanchís eta Campos, 2008:194). Ekonomia sozial eta solidarioko erakundeek gero eta onespenez eta ikusgarritasun maila handiagoa dute botere publikoen eta gizarte eragileen aurrean, eta, hori dela eta, abantaila ugari dituzte sektore kapitalistaren aldean. Abantaila horiek gizarte premiei zuzenean lotutako zerbitzu talde handien esleipenaren eta ekoizpenaren eraginkortasunari dagokien abantailak dira, izan ere, oro har, sintonia handiagoa dago ondasun eta zerbitzu horien -ura, argia, garraioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak, etab.- eta zerbitzu publikoaren zentzuarekin horiek hornitzen dituzten erakundeen filosofia sozial eta komunitarioen artean (García Serrano eta López Serrano, 2011:30-32). Eremu publiko eta sozialaren premien eta ondasunak eta zerbitzuak hornitzen dituen sektore produktiboaren arteko bitartekaritza zeregin hori da, hain zuzen ere, berrikuntza sozialeko prozesuak sortzeko eta horiek gidatzeko aukera ematen duena.

Azkenik, *aniztasunaren* eta *koherentziaren* arteko tentsioa kudeatzeko erronkari aurre egin behar diote erakundeek, gaitasun, interes eta nortasun eta ikuspegi eta pentsatzeko modu ugari edukitzeaz gainera, testuinguru gero eta konplexuago batean zatiketa saihesteko modua bilatu behar dute. Erakundeak gaitasunak orekatzen saiatu behar dira, esaterako, “teknikak” eta “politikak”, kanpoaldera zein barrualdera begirakoak, epe labur zein epe ertainekoak, etab.


Aurreko atalean adierazi bezala, gaur egun ekonomia publikoaren eta ekonomia kapitalistaren artean kokatzen diren enpresa eta erakunde mota asko daude, era askotako egitura juridikoekin eta antolamenduari dagozkienekin, merkataritzaren baliabideak eta halakoak ez direnak erabiltzen dituztenak -dohaintzak, Estatuaren diru-laguntzak, borondatezko lana-, merkatuaren logika solidaritatearen eta birbanaketaren logika-

²⁵ Mondragon Taldearen kasuan, elkarrekiko lankidetzaren sektoreko taldeen sorreran gauzatu da, eta horrek bidea eman die eskalako ekonomiei eta antolamendu sinergiegi; gizarteraren eremuan, aldiz, gardentasuna bultzatu da, bai eta bazkide langileen sustapena ere. Hori agerian gelditu da kooperatiba berrien sustapenean, finantzaren, hezkuntzaren eta ikerketaren eremuan estaldura ematen duten entitateen sorreran eta gizarteraren eta enpresaren eremuan proiektu komunak gauzatzean. Ikusi: <<http://www.mondragon-corporation.com/CAS/Cooperativismo/Experiencia-cooperativa/Cultura-Cooperativista/Intercooperaci%C3%B3n.aspx>>

rekin nahasten dituztenak eta barne kudeaketarako sistema askotarikoak txertatzen dituztenak. Ekimen eta ekintzailtza ugartasun horrek aberastasun handia ekartzen du, eta horrek ondorioz dakar, aldi berean, esperientzia eta egoera aniztasun handia; hala ere, beharrezkoa du koherentzia, dena posible izan ez dadin ekonomia sozial eta solidarioaren barruan. Eta horretan, funtsezko zeregina betetzen dute, hain zuzen ere, balio solidario eta kooperatiboen alorreko prestakuntzak eta hezkuntzak.

Hezkuntza kooperatiboaren helburua da pertsonak prestatzea ondo moldatu daitezkeen barneko antolamenduaren kudeaketan, finantzetan eta plangintza eta zuzendaritza ekonomikoan, baina baita giza harremanetan, harreman pertsonaletan eta harreman sozialetan pertsona hobek sortzeko aukera emango dieten gaitasunetan ere. Horrela lortzen da bertako kideen gaitasunak askotarikotzea, beren aniztasuna aberastea, eta, aldi berean, beharrezko egonkortasuna bermatuko duen koherentziari eustea.

Hezkuntza behar beharrezko zutarria da paradigma kooperatiboan (Silva, 2010:81), horrek aukera ematen baitie bazkideei ikaskuntza eremu baten barruan jarduteko beti, eta talde bateko kide gisa eta funtsezko eragile gisa perfekzionatzeko; hezkuntzak ematen die bazkideei kooperatibismoaren ahalmenaz kontzientzia hartzeko aukera, eta kudeaketa tresnak beren mesederako eta erakundeak elkarreragiten duen komunitatearen eta sistema ekonomikoaren mesederako sendotzeko; hezkuntza da gizabanako gisa eta kolektibitate gisa gizakiaren subiranotasuna eraikitzeko aukera ematen duena, gizabanakoak taldean eta/edo banaka zer aberastasun duen hautemateko baliagarria den giza kudeaketa eredu batek eskaintzen dituen abantailei zentzua aurkitzeko aukera ematen duena eta, aldi berean, aberastasun kolektibo iraunkorrerako osagaiak sortzeko aukera ematen duena.



Iturria: Lan honetarako egina.

Kudeaketan ez dira soilik tresnak, teknikak, arauak edo legeak ikasi behar; horien gaitetik, kontzientzia hartu behar da administratzen dena, kudeatzen dena, enpresa kooperatibo bat dela, eta hura ez da hartu behar zerbitzuak saltzeko, diru-sarrerak sortzeko eta etekinak lortzeko tresna huts gisa. Hezkuntza kooperatibotik abiatuta ulertzen da administratzen, zuzentzen, kontrolatzen eta antolatzen dela zerbitzua -zerbitzua erakundearen funtsezko helburutzat hartuta-, eta ez soberakinak sortzeko baliabide hutstzat. Prestakuntza eta gaikuntza hobe horrek aukera emango du egokitzeko eta nork bere burua berritzeko gaitasunak areagotzeko, eta horiek, aldi berean, norbanakoaren zein taldearen ikaskuntzekin dute zerikusia. Prestakuntza eta gaikuntza hori, gaitasun tekniko-profesionalen eremuan ez ezik, identitate kooperatiboarekin zerikusia duten beste eremu batzuetan ere egiten bada, kooperatibako kideen gaitasunak dibertsifikatu egingo dira, eta, aniztasuna aberasteaz gainera, beharrezko egonkortasuna bermatuko duen koherentziari eutsiko zaio.

4. Ondorioak



Ekonomia sozial eta solidarioak alderdi ekonomikoaren dimentsio arautzailea berreskuratzen du, eta bere egiten ditu XIX. mendearen bukaeraz geroztik eta XX. mendean zehar ekonomia konbentzionalaren *homo economicus* ideiarenekin oinarri diren printzipioak zalantzan jarri dituzten ekarpenak, bereziki, ikuspegi instituzionalistarenak eta neoinstituzionalistarenak, ekonomia ekologikoarenak, ekonomia feministarenak, ekonomia komunitarioarenak eta hainbat korrante kritikorenak.

Giza premien ikuspegi utilistaren atzean dagoen ongizate ideiarenekin aurrez aurre, giza garapenaren ikuspegiak giza gaitasunak hartzen ditu erreferentzia gisa, bertsio indibidualenean eta, bereziki, taldeari dagokion dimentsioan. Ekonomia sozial eta solidarioak Tokiko Giza Garapenaren dimentsio ekonomikoa edukiz hornitzeko oinarriak finkatzen ditu, oinarrian dituen printzipioak eta balioak, zein horiek garatzen dituzten jardunbideak, bat datozelako eta bat egiten dutelako gaitasun zentraleri eta kolektiboeri sendotasuna emateko.

Ekonomia sozial eta solidarioak funtsean dituen eta sustatzen dituen printzipioek eta balioek gaitasun zentralak sendotzen laguntzen dute, lana jarduera ekonomikoaren eta giza jardueraren erdigunean kokatzen dutelako, kapitala haren mendean jarritz; kontuan hartzen ditu giza dimentsioak, dimentsio sozialak eta politikoak, eta lankidetzak bultzatzen du lehiaren aurrean, tokiko garapen harmonikoan, merkataritza harreman bidezkoetan, berdintasunean, konfiantzan, erantzukidetasunean eta gardentasunean oinarrituta dagoen gizarte eredu bat modu kolektiboan eraikitzeko xedearekin.

Ekonomia sozial eta solidarioak ingurunearen beraren kontrola sustatzen laguntzen du, parte-hartze sinbolikoaz haratago, pertsonen jabetzan eta maila guztietako kudeaketan erabateko parte-hartzea izan dezaten bultzatzen eta horretarako aukera ematen dutelako, eta enpresaren jardueretan zein bizitza kultural, sozial, ekonomiko eta politikoaren beste eremuetan. Hala ere, ez da alde batera utzi behar horren aplikazio praktikoak sortzen dituen arazoak, hala nola, ekonomizismorantz lerratzea, beste erakunde batzuekiko harremanik eza edo teknokrazia demokraziari gailentzea, eta bazkideen parte-hartze ekonomikoaren edo erakundeen baitan genero desberdintasunek horretan irautearen ondoriozko beste batzuk.

Ingurumenaren iraunkortasuna, eta bizitzarena oro har, ekoizpen garbiaren, kontsumo arduratsuen, elikaduraren subiranotasunaren eta lurralde orekaren gainean oinarrituta, ekonomia sozial eta solidarioan aintzat hartzen diren balioak eta printzipioak dira; hala ere, ez datoz beti bat erakunde horietan gauzatutako jardunbideekin.

Pertsonen erabateko parte-hartzea, ondo informatuta egoteko eskubidea, ekiteko eta sortzeko gaitasunen hobekuntza, ikaskuntzaren sustapena eta erakundearen hainbat eremutan pertsonen eta erakundearen arteko lan kooperatiboa balio eta jardunbide funtsezkoak dira ekonomia sozial eta solidarioan, eta horiei esker handitu liteke bertako kideen eta erakundearen konpromiso maila, horrela sortuz, orobat, lankidetzan, elkarrenganako konfiantzan, konpromisoan eta balio partekatuetan oinarritutako kultura, identitate kolektiboa eta bertako kide izatearen zentzua indartzen dituen.

Ekonomia sozial eta solidarioa estu lotuta dago tokiko garapenarekin, lurraldetik bertatik, bertako jendearengandik eta erakundeetatik sortzen delako, eta lurraldean sustatuta dago, baliabide endogenoak erabiltzen ditu eta tokiko gaitasunak sustatzen ditu lurraldean ingurune berritzailea sortzeko. Komunitateen premiei erantzuteko joera du, garapen komunitarioaren zerbitzura egotekoa; ahalmen berezia du gizartearen beste eremu batzuekin konprometitzeko, eta etekinak sortzen diren lurraldean bertan horiek berriro inbertitzeko joera handiagoa du, horrela sustatuz tokiko metatze prozesuak; gaitasun handia du kultura ekintzailea eta enpresa egitura sortzeko eta zabaltzeko, bai eremu ekonomikoan bai sozialean. Ildo horretatik, aipatzekoa da ezinbestekoa dela ekonomia sozial eta solidarioaren eta tokiko garapenaren eta lurraldearen garapenaren arteko elkarriketa indartzea, osagai asko partekatzen baitituzte; alabaina, arreta berezia jarri behar da hark eragin ditzakeen ekarpenetan, hala nola, ingurumenaren iraunkortasuna (ez baita beti errespetatzen hazkunderari lotutako garapenaren ikuspegitik), tokian tokikoaren zeregina eta garrantzia (ez bakarrik nazioartean txertatzearen aurrez aurre, baita bizitzaren erreproduzioaren aurrez aurre ere), irabazi asmorik eza etekinaren maximizazioaren aurrez aurre kontuan hartzea, edo lankidetzaren zentzua, eskalako ekonomien sorreraz haratago kokatzen dena.

Krisi eta aldaketa testuinguruaren aurrean, ekonomia sozial eta solidarioak erakutsi du erresilientzia eta egokitzapen gaitasunak dituela, eta, bereziki, lanpostuak sortzeari eta enplegua babesteari dagokion eremuan ematen dela aditzera, eta hori berezkoa du, lanaren jabetzak eta kapital sozialak lotu egiten dituelako pertsonaren eta familiaren etorkizuna enpresaren etorkizunarekin. Era berean, gero eta onespenean eta ikusgarritasun maila handiagoa duenez botere publikoen eta gizarte eragileen aurrean, abantaila ugari ditu gizarte premiei zuzenean lotutako zerbitzu talde handien esleipenaren eta ekoizpenaren eraginkortasunari dagokionez, izan ere, oro har, simetria handiagoa dago eskaintzailearen eta eskatzailearen artean, hau da, sintonia handiagoa dago ondasunen eta, zerbitzu horien eta zerbitzu publikoaren zentzuarekin, horiek hornitzen dituzten erakundearen filosofia sozial eta komunitarioaren artean.

Azkenik, ekonomia sozial eta solidarioko erakundeek erakutsi dute gaitasunak dituztela hainbat interes eta nortasun, perspektiba eta pentsatzeko erak kudeatzearen erronkari aurre egiteko, baina beharrezko koherentziarekin; eta horren erakusgarri dira ekonomia publikoaren eta ekonomia kapitalistaren artean kokatzen diren enpresa eta erakunde ugariak, forma juridiko eta antolakuntza ugariarekin, merkataritzaren zein merkataritzaz kanpoko baliabideak erabiltzen dituztenak, merkatuaren logika eta solidartatearena eta birbanaketarena nahasten dituztenak, eta barneko kudeaketa sistema

askotarikoak txertatzen dituztenak. Balio solidario eta kooperatiboetan oinarritutako prestakuntzak eta hezkuntzak funtsezko zeregina betetzen dute, balio kooperatibo eta solidarioen hezkuntzaren helburua baita, pertsonak barneko antolamenduaren kudeaketan, finantzetan eta plangintza eta zuzendaritza ekonomikoan ondo baliatzeko gaitasunetan trebatzea ez ezik, giza harremanetan, harreman pertsonaletan eta harreman sozialetan pertsona hobeak prestatzeko aukera emango duten gaitasunetan ere trebatzea.

5. Bibliografía



- ARRUDA, Marcos (2004): “¿Qué es la economía solidaria? El renacimiento de una sociedad humana matrística”. *Ecología Política* 27, 71-75. or.
- ARRUDA, Marcos (2005): *Humanizar lo infrahumano: la formación del ser humano integral: homo evolutivo, praxis y economía solidaria*. Icaria. Bartzelona.
- ARRUDA, Marcos (2007): “Intercambiando visiones sobre la socioeconomía solidaria”. Eskuragarri: ##<<http://www.dhl.hegoa.ehu.es/ficheros/0000/0342/PONEN CIAArruda1.pdf>>.
- ARRUDA, Marcos (2010): *Hacer real lo posible: la formación del ser humano integral: economía solidaria, desarrollo y el futuro del trabajo*. Icaria. Bartzelona.
- BASER, Heather; MORGAN, Peter (2008): *Capacity, Change and Performance. Study Report*. European Centre for Development Policy Management. Discussion Paper 59 B.
- BEL DURÁN, Paloma; FERNÁNDEZ GUADAÑO, Josefina (2002): “La financiación propia y ajena de las sociedades cooperativas”. *Revista de CIRIEC* N 42, 101-130. or.
- BIRCHAL, Johnston; KETILSON; Lou Hammond (2009): *Resilience of the Cooperative Business Model in Times of Crisis*. ILO. Geneva.
- CARRASCO, Cristina; BORDERÍAS, Cristina (1994): “Las mujeres y el trabajo: aproximaciones históricas, sociológicas y económicas”. En Carrasco, Cristina; Borderías, Cristina; Alemany, Carmen (Comp.). *Las mujeres y el trabajo. Rupturas conceptuales*. FUHEM/Icaria. Barcelona, pp. 15-109.
- CARRASCO, Cristina; BORDERÍAS, Cristina; TORNOS, Teresa (2011): “El trabajo de cuidados: antecedentes históricos y debates actuales”. In Carrasco, Cristina; Borderías, Cristina; Tornos, Teresa (2011) *El Trabajo de cuidados. Historia, teoría y políticas*. Catarata. Madril, 13-95. or.
- CEPES (2011): *La economía social en España 2010-2011*. Confederación Empresarial Española de la Economía Social, Madril.
- CICOPA (2011): “A pesar de las dificultades, las cooperativas de industria y servicios, resisten a la crisis y sus consecuencias”. Krisiari buruzko urteko hirugaren txostena.

- Organización Internacional de las Cooperativas de Producción Industrial, Artesanal y de Servicios. (2013ko abenduaren 9an kontsultatua). Eskuragarri: <<http://www.cicopa.coop/Resistencia-de-las-cooperativas-a.html>>.
- CIRIEC (2006): “La Economía social en la Unión Europea”. Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearentzat (CESE) egindako txostenaren laburpena. DI CESE 96/2007. Ekonomia Publiko, Sozial eta Kooperatiboari buruzko Ikerketa eta Informaziorako Nazioarteko Zentroa (2012ko urtarrilaren 2an kontsultatua). Eskuragarri: <http://www.observatoritercersector.org/pdf/centre_recursos/1_8_eco_03565.pdf>.
- COCETA (2010): *Cuando se trata de personas, las cooperativas llevan la iniciativa. Cooperativas de trabajo de iniciativa social. Radiografía de un sector en evolución*. Confederación Española de Cooperativas de Trabajo Asociado, Madril.
- CORAGGIO, José Luis (2011): *Economía social y solidaria. El trabajo antes que el capital*. Alberto Acosta eta Esperanza Martínez (Argitaratzaileak). FLACSO/Abya Yala. Quito.
- CHAVES, Rafael; SAJARDO, Antonia (2004): “Economía política de los directivos de las empresas de economía social”. *CIRIECen Aldizkaria*, 48. zk., 31-52. or.
- CHAVES, Rafael; MONZÓN, José Luis (2006): *La Economía Social en la Unión Europea*, Comité Económico y Social Europeo, mimeo.
- CHAVES, Rafael (2008): “La economía social: dos décadas generando empleo, tejido productivo y cohesión social en Europa”. Valentziako Unibertsitateko Ekonomia Sozial eta Kooperatiboaren Institutu Unibertsitarioa (2012ko urtarrilaren 3an kontsultatua). Eskuragarri: <<http://www.eco.uva.es/novedades/vsem/PRC.pdf>>.
- DÁVALOS, Pablo (2008): *Reflexiones sobre el sumak kwasay (buen vivir) y las teorías del desarrollo*. ALAI (Informazioaren Latinoamerikar Agentzia), Quito. (2012ko urtarrilaren 3an kontsultatua). Eskuragarri: <<http://alainet.org/active/25617>>.
- DEFOURNY, Jacques; NYSSSENS, Marthe (2006): “Defining social enterprise”, in: Nyssen, M. (ed.): *Social Enterprise*. Ed. Routledge. Londres.
- DÍAZ FONCEA, Millán; MARCUELLO, Carmen (2010): “Impacto económico de las cooperativas. La generación de empleo en las sociedades cooperativas y su relación con el PIB”. *CIRIEC-España*. 67. zk., 23-44. or.
- DOYAL, Len; GOUGH, Ian (1994): *Teoría de las necesidades humanas*, Icaria, Bartzelona.
- DUBOIS, Alfonso (2012): “El desarrollo de las capacidades colectivas y la economía social y solidaria: una propuesta teórica”. Comunicación. VII Congreso Internacional Rulescoop, *Economía social: identidad, desafíos y estrategias*. Valentzia.
- ERRASTI, Ángel María; HERAS, Iñaki. et al. (2002): “La internacionalización de las cooperativas y su responsabilidad social”. *Revista de Dirección y Administración de Empresas* 10. zk., 2002ko abendua, 119-145. or.

- GAIGER, Luiz Inacio (2007): “La Economía Solidaria y el capitalismo en la perspectiva de las transiciones históricas”, in Coraggio, José Luis (ant.): *La economía social desde la periferia. Contribuciones latinoamericanas*. Colección de lecturas sobre Economía Social, Altamira, UNGS, Bs. As.
- GENDRON, Corinne (2004): “*Développement durable et économie sociale: convergences et articulations*” *Cahiers de l'ARUC-ÉS*. R-17. zk.
- GOUGH, Ian (2008): “El enfoque de las capacidades de M. Nussbaum: un análisis comparado con nuestra teoría de las necesidades humanas”. *Papeles de Relaciones Ecosociales y Cambio Global*, 100. zk., CIP-Ecosocial/Icaria.
- GUERRA, Paulo (2012): “Economía de la Solidaridad. Una introducción a sus diversas manifestaciones teóricas”. (2013ko abenduaren 9an kontsultatua). Eskuragarri: <<http://tacuru.ourproject.org/documentos/guerra.pdf>>.
- HINKELAMMERT, Franz; MORA, Henry (2006): *Hacia una economía para la vida. Preludio a una reconstrucción de la Economía. Edición revisada y aumentada*. (2012ko urtarrilaren 3an kontsultatua). Eskuragarri: <http://www.pensamientocritico.info/libros/libros-de-franz-hinkelammert/doc_details/9-hacia-una-economia-para-la-vida.html>.
- HINKELAMMERT, Franz; MORA, Henry (2009): “Por una economía orientada a la reproducción de la vida”. *ICONOS. Revista de Ciencias Sociales* 33. zk. 39-49. or. FLACSO. (2013ko abenduaren 9an kontsultatua). Eskuragarri: <<http://www.flacso.org.ec/docs/i33franz.pdf>>.
- HUANACUNI, Fernando (2010): *Buen Vivir / Vivir Bien Filosofía, políticas, estrategias y experiencias regionales andinas*. Coordinadora Andina de Organizaciones Indígenas - CAO (2012ko urtarrilaren 3an kontsultatua). Eskuragarri: <<http://www.reflectiongroup.org/stuff/vivir-bien>>.
- ICA (1995): *The international co-operative alliance statement on the co-operative identity. The co-operative principles*. International Cooperative Alliance. (2012ko urtarrilaren 3an kontsultatua). Eskuragarri: <http://www.csce-ekgk.coop/archivo_1/9iiMjAy0_1996_1_ei.pdf>.
- LAVILLE Jean Louis; LEVESQUE Benoit; MENDELL, Margaritte (2005): “L'économie sociale: diversité des trajectoires historiques et des construction théoriques en Europe et au Canada”. *Cahiers de l'ARUC-ÉS*. C-12-2005 zk.
- LAVILLE Jean Louis; LEVESQUE Benoit; MENDELL, Margaritte (2007): “The Social Economy: Diverse Approaches and Practices in Europe and Canada” in Noya, A. eta Clarence, E. (2007): *The Social Economy. Building inclusive economies*. Chapter 5. OECD.
- MAX-NEEF, Manfred; ELIZALDE, Antonio; HOPPENHAYN, Martín (1993): *Desarrollo a escala humana. Conceptos, aplicaciones y algunas reflexiones*. Icaria. Bartzelona.
- MONZÓN, José Luis (2006): “Economía Social y conceptos afines: fronteras borrosas y ambigüedades conceptuales del tercer sector”. *CIRIEC-España*, 56. zk., 9-24. or.

- MORGAN, Peter (2006): *The Concept of Capacity*. European Centre for Development Policy Management.
- NUSSBAUM, Martha C. (2007): *Las fronteras de la justicia*. Paidós.artzelona. Lehenengo argitalpena ingelesez, 2006. Harvard College.
- NUSSBAUM, Martha C. (2012a): *Las mujeres y el desarrollo humano: el enfoque de las capacidades*. Herder.artzelona. Bigarren argitalpena espainolez. Lehenengo argitalpena ingelesez 2000. Cambridgeko unibertsitatea.
- NUSSBAUM, Martha C. (2012b): *Crear capacidades. Propuesta para el desarrollo humano*. Paidós.artzelona.
- PÉREZ DE MENDIGUREN, Juan Carlos; ETXEZARRETA, Enekoitz; GURIDI, Luis (2009): “Economía Social, Empresa Social y Economía Solidaria: diferentes conceptos para un mismo debate”. *Papeles de Economía Solidaria* 1. zk. REAS. Bilbo.
- PÉREZ OROZCO, Amaia (2004): “Estrategias feministas de deconstrucción del objeto de estudio de la economía”. *Foro Interno* 4, 87-117. or. Universidad Complutense.
- PÉREZ OROZCO, Amaia (2012): “De vidas vivibles y producción imposible”. (2012ko urtarrilaren 3an kontsultatua). Eskuragarri: <http://anticapitalistas.org/IMG/pdf/de_vidas_vivibles_y_produccion_imposible.pdf>.
- PNUD (2008): *Capacity development. Practice Note*.
- POLANYI, Karl (1989): *La gran transformación. Crítica del liberalismo económico*. Ediciones de La Piqueta. Madril.
- QUIROGA, Natalia (2009): “Economías feminista, social y solidaria. Respuestas heterodoxas a la crisis de reproducción en América Latina”. *ICONOS* 33. zk. FLACSO. Ecuador, 77-89. or. (2012ko urtarrilaren 3an kontsultatua). Eskuragarri: <<http://www.flacso.org.ec/docs/i33quiroya.pdf>>.
- RAMOS GOROSTIZA, José Luis (2004): “La cuestión de las necesidades en el pensamiento económico”. *ICE*. 181. zk., 205-220. or.
- RAZZETO, Luis (2007): “La Economía de la Solidaridad: concepto, realidad y proyecto”. In: Coraggio, José Luis. (org): *La Economía Social desde la periferia. Contribuciones latinoamericanas*, Colección de lecturas sobre Economía Social, Altamira, UNGS, Bs. As.
- REAS (2011): “Carta de Principios de Economía Solidaria”. Red de Economía Alternativa y Solidaria. (2012ko urtarrilaren 3an kontsultatua). Eskuragarri: <http://www.economiasolidaria.org/files/CARTA_ECONOMIA_SOLIDARIA_REAS.pdf>.
- SABÍN GALÁN, Fernando; FERNÁNDEZ CASADEVANTE, José Luis.; Bandrés de Lucas, Iñigo (2012): *FACTOR C. Factores de resistencia de las microempresas cooperativas frente a la crisis y recomendaciones para un fortalecimiento cooperativo del sector de lo social*. (2013ko abenduaren 9an kontsultatua). Eskuragarri: <<http://www.andaira.net/index.php/experiencia/proyectos/investigacion-social-aplicada/60-factor-c>>.

- SAJARDO, Antonia (1996): *Análisis económico del sector no lucrativo*. Tirant lo Blanch. Valenzia.
- SAJARDO, Antonia; MONZÓN, Rafael (2006): “Balance y tendencias de la investigación sobre Tercer Sector no lucrativo. Referencia al caso español”. *CIRIEC-España*, 56. zk., 87-116. or. (2012ko urtarrilaren 3an kontsultatua). Eskuragarri: <<http://redalyc.uaemex.mx/pdf/174/17405605.pdf>>.
- SANCHIS, Juan Ramón; CAMPOS, Vanessa (2008): “La innovación social en la empresa: el caso de las cooperativas y de las empresas de economía social en España”. *Revista de Economía Industrial*, 368 zk., 187-196. or.
- SILVA, Iván (2005): “Desarrollo económico local y competitividad territorial en América Latina”. *Revista de la CEPAL* 85, 81-100. or.
- SINGER, Paul (2006): “Economía Solidaria: posibilidades y desafíos”. Presentación en el Sindicato de Ingenieros de Rio de Janeiro. (2013ko abenduaren 9an kontsultatua). Eskuragarri: <http://www.dhl.hegoa.ehu.es/ficheros/0000/0179/economia_solidaria_posibilidades_y_desafios.pdf>.
- SINGER, Paul (2009): “Relaciones entre sociedad y Estado en la economía solidaria”. *Iconos. Revista de Ciencias Sociales*, 33. zk., 51-65. or. FLACSO. Ecuador. (2012ko urtarrilaren 3an kontsultatua). Eskuragarri: <<http://redalyc.uaemex.mx/src/inicio/ArtPdfRed.jsp?iCve=50903305>>.